

Garenako izarra

Dimako Garena jatetxeak Michelin izarra lortu du. Julen Baz sukaldari zornotzarra buru duen proiektuak baserrietako sukaldeetako zapoak ipini ditu erdigunean. • 2-3



Gure Zirkuak Durangon ekingo dio denboraldi berriari

Gure Zirkuak Durangon ekingo dio denboraldi berriari. Maiatzaren 6tik 24ra hamalau emanaldi eskainiko dituzte. Sarrerak 'gurezirkua.eus' webgunean daude salgai. • 5



Gehigarria

Traña-Matienako jaiak: denboraldiko lehenengo parranda

Abadiño • Traña-Matienako jaiak denboraldiko eta COVID-19aren osteko lehenengoak izango dira. Egitarau oparoa prestatu dute apirilaren 27tik maiatzaren 8ra arte. Jai batzordeak hileak daramatza ekitaldiak antolatzen. • 13 - 18



Izena emon



LANBIDE HEZIKETA Ate Irekiak

Goi Maila, Espezializazioak
Apirilak 27 18:00tan

Erdi Maila, Oinarrizko LH
Maiatzak 4 18:00tan

946810058 www.maristak.com



**Julen
Baz Mujika**

Sukaldaria

ZORNOTZA | 1988

“Ametsik potoloenak aurten bete ditut”

Julen Baz sukaldari zornotzarrak baserrietako zaporeak oinarri dituen proiektua hasi du Dimako Garena jatetxean

ZORNOTZA • J. GUENETXEA/E. HERRERA

Arratia sakonean, Dimako Lamin-dao auzoan, Garena jatetxea dago. Bidearen azken zatiko auzo bide aldapatsuak bisitaria despistatu egiten duen arren, helmugak merezi du. Gorbeia mendira begira dagoen baserria Julen Baz sukaldariaren etxea da orain. Urtebete eta zortzi hilabeteko denbora tartean Michelin Izarren konstelazioan sartu da zornotzarra. Urte oparoa izan du aurten. Errekonozimendu horrez gainera, Repsol Eguzkia eta Cocinero Revelación sariak jaso ditu.

Michelin izarra jasota, zelako aldaketa da hori?

Michelin izarra jaso arren, guk berdin lan egiten jarraitzen dugu. Datozen denei ahalik eta ondoan eman behar diegu jaten, zerbitzurik onena eskainita. Dena milimetroan neurtuta egon behar da. Egia

esan, orain bezeroak beste espektatiba batez datoz. Lehen, errazago onartuko zuten zure akatsen bat, baina, orain, izarra lortuta, izar hori zeozergaitik daukazula erakutsi behar duzu. Gure partetik baino gehiago, bezeroaren partetik dago alde. Ez da orokorra, baina orain bezero mota bat eskopeta kargatuta etortzen da eta horrek bertigo handiago ematen du. Aldaketak egiten gabilta denbora guztian: plater bat bezeroen gustukoa izango den ala ez, hasieratik daudenei eutsi... Etenik barik egiten ditugu aldaketak, eta, zorionez, bezeroek etortzen jarraitzen dutenez, egunean egunekoa egiten dugu. Ez dugu astirik izarraren inguruan pentsatzeko.

Zer da gatxagoa, izar hori lortzea ala horri eustea?

Biak gatxak. Lortzeak lan handia dakar, baina izarrari eustea ere

bai, ezin zarelako erlaxatu. Behin izarra duzunean, maila horri eutsi behar diozu. Baina guk bezeroari begira lan egiten dugu, hori argi dugu, ez Michelin sariari begira. Hori bai, izar horrek indarra ematen dizu jarraitzeko. Oso errekonozimendu potoloa da, baina gure lana bezeroei zuzenduta dago.

Bezeroen profila aldatu egin da izarraren aurretik eta ostean?

Oraingoz ez. Hasieran, inguruko jendea etortzen zen, honaino etorri egin behar da eta. Baina izan ditugu beste errekonozimendu batzuk ere: Cocinero Rebelación, Repsol Eguzkia... Urte erdi batetik hona, Euskal Herritik kanpoko jendea ere etortzen hasi da. Beraz, denerik etortzen da.

Michelin izarra jaso arren, guk berdin lan egiten jarraitzen dugu. Bezeroari begira lan egiten dugu, hori argi dugu, ez Michelin sariari begira

Zein da Garenaren sukaldaritzako filosofia?

Baserrian oinarritzen da, hori hasieratik argi nuen zerbait da. Euskal Herri osoko baserriarrek in egoten hasi nintzen, antzina zelan bizi ziren eta zelan jaten zuten

jakiteko. Zein plater jaten zuten eta abar. Gaur egun gauza hauei ez diegu garrantzirik ematen, baina interesgarria da ontziak belaunaldirik belaunaldi zelan joan den gordetzen eta horrelako gauzak. Bestalde, Arratiari indarra ematea ere garrantzitsua zen, eta bertako hornitzaile txikiekin lan egitea, euren produktu freskoak izatea. Karta eta dastatzeko menua lantzen ditugu. Aste barruan, merkatuko menu bat dugu, astero aldatzen duguna. Baina nabarmenena dastatzeko menua da eta 500 urtetik hona baserrietan zelan jan izan den lantzen dugu horretan. Plater bakoitzak bere istorioa dauka.

Beraz, 0 kilometroan oinarritzen zarete.

Bertoko baserriarrek proiektu bat dugu, eta hemen bertan ortu bat ipintzeko asmoa dugu. Antzina produktuak haziak berreskuratu gura ditugu eta antzinako moduan landu. Hemendik bi edo hiru urtera proiektu horrek bere fruituak ematea espero dugu. Ez du zentzurik produktuak kanpotik ekartzea etxe ondoan baditugu. Gainera, gure artean sare hori sortzea ona da guretzat, eta baita ekoizleentzat ere. Alde biezat da garrantzitsua.

Lehenengo ohituretara jotzen duzue proposamen berritzaile bat egiteko.

Horrelakoa da gure sukaldaritza. Betiko eta antzinako zaporeak dira. Etxetik kanpora bazkaltzera goazenean, horixe gura izaten

dugu. Etxean gutxitan prestatzen ditugu indabak, lapikokoak edo gisatu batek denbora asko eskatzen dutelako. Bizi dugun estresagaz ez dugu astirik kozinatzeko. Nik neuk ere ez dut askorik kozinatzen etxean, eta lehen jaten genuen janariaren falta igartzen dut. Horregaitik, etxetik kanpora noanean hori topatu gura izaten dut. Bezeroak orokorrean horixe gura duela esango nuke. Etxean kozinatzen ez duena jatea. Gero, ikutu pare bat eman ahal dizkiozu. Guk brasari ere garrantzi handia ematen diogu. Brasa handia daukagu eta ikutu hori eman diezaiokegu. Bi dira gure osagai nagusiak: salda potente bat eta osagai freskoak. Horixe da Garenako sukaldaritza.

Bi dira gure osagai nagusiak: salda potente bat eta osagai freskoak. Horixe da Garenako sukaldaritza

Zelan sortu zitzaizun sukaldari izateko grina?

Etxean, izekogaz bizi izan naiz. Izekoren etxean zortzi edo bederatz lagun bizi ginen, eta han beti zegoen saltsa. Sukaldea beti zegoen martxan, eta, gainera, hori gustatu egiten zitzaion izekori. Jatetxeetan

lez izaten zen. Lehenengo plater bi, bigarrenak beste hiru, eta postreak ere aukeran egoten ziren. Sobratzen zena hurrengo egunerako geratzen zen. Beti egoten ziren aukerak. Asteburuetan, kroketen besamela eta horrelako gauzak egiten laguntzen nion. Zaletasuna hortik datorkidala esango nuke.

Eneko Atxarenean lan egin zenuen. Badago antzekotasunik zuen proiektuetan?

Azurmendiko sukaldaritza eta Garenakoa oso ezberdinak dira. Antzekotasunen bat egon daiteke saltsaren bat egiterako orduan, baina oso ezberdinak gara. Garenako proiektuan baserrietara baino ez goaz. Ezin gara marra horretatik irten, horixe delako gure filosofia. Azurmendin ikasi nuen garrantzitsuena diziplina eta ordena izan ziren. Eta garbitasuna. Azurmendin oso markatuta dagoen kontua da hori, eta Garenan ere bai.

Zeintzuk dira zure erreferenteak sukaldaritzan?

Orain, Norvegiarantza begiratzen nabil asko. Oso sukaldari onak daude han. Erreferenteei buruz berba egiten dugunean, segun eta zertarako den bereziko nuke. Sukaldari baten filosofia gustatu ahal zaizu, edo zelan berba egiten duen, zelan kozinatzen duen, zelan platereratzten duen janaria, jatetxea bera... Betiko erreferenteengana jotzen dugu eta, egia esan, belaunaldi berriak ahaztuta daude. Askok begiratzen dut gazte jendea zer egiten dabilen. Lehengo egunean, Madrileko lagun batzuk etorri ziren, Eter jatetxeakoak, eta niretzat horiek ere meritu handia daukate. Bost mahai baino ez daukate. Madrilena daude eta hori oso plaza gatxa da, baina jatetxea betetzen dute eta euren izena egiten dabilta. Oso belaunaldi indartsua dator atzetik, eta horiei ere begiratu behar zaie.

Sukaldaritza modan dago, telebistako programetan esate baterako. Igartzen duzue hori?

Bai eta ez. Jendeak pentsatzen du hemen lan egitea telebistan agertzen den hori dela. Baina arazo

potolo bat daukagu: jendeak ez du ostalaritzan lan egiterik gura. Ostalaritza eskoletan badaude ikasleak, baina ez dago inor salan zerbitzatzen. Gure arazorik handienetarikoa bat langile kopurua da. Ez daukagu jenderik lan egiteko. Hori arazo handia da. Arazoetariko bat telebistan saltzen dena da beharbada. Errealitate bat saltzen dute, baina gero ez da horrela. Lan hau bokaziozkoa izan behar da. Beste lan batzuetan posible da gustukoa izan ez arren bertan lan egitea. Hemen ordu asko sartzen dugu. Gainera, lanetik kanpora ere jarraitu behar dugu liburuak irakurtzen, beste jatetxe batzuk ezagutzen... Formakuntza etenkakoa da. Baina jendeak pentsatzen du eskolatik irten eta jatetxe bat muntatzea erraz-erraz dela. Hemen korrontearen kontra goaz. Asteburuetan lan egin behar da. Jendeak jai du eta gure etxera etorriko dira jatera. Aste barruko egun batzuk hartuko ditugu libre, baina jendea lanean dago eta ezin dute zugaz planik egin. Beraz, benetakoa ez den gauza bat saltzen dabilta.

Lanbide gogorregia izan daiteke askorentzat.

Bai, baina niri gustatu egiten zait eta ez nuke beste ezergaitik ere aldatuko. Ez dit ardura hamasei orduan lan egiteak, eta hurrengo egunean beste hamalauan. Fabrika batean zortzi ordu ez nituzke jasango. Ez dut neure burua fabrika batean ikusten. Hauxe da nire pasioa. Gaur jaieguna da eta bertan nago, baina ez dit ardura.

33 urteagaz hainbat errekonozimendu jaso duzu, jatetxea ondo doa... Zer gelditzen zaizu egiteko? Izango duzu bete barik duzun ametsen bat.

Ametsak kontatzen badituzu, ez dira betetzen [barrez]. Ametsik potoloenak aurten bete ditut. Ambitious aldizkari gastronomikoan zortzi orrialde eskaini zizkiguten; Repsol Eguzkia, Michelin Izarra eta Cocinero Revelación sariak irabazi ditugu. Ametsak buruan ditut eta egunen batean betetzen badira, beste elkarrizketa bat egingo dugu.



22. ^{ak} korrika

bertako
igogailuak | ascensores

HITZ EKIN
Amurriotik Donostia
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

EUSKARA,
GURE HELBURU KOMUNA

ARABA
945 712 822

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

NAFARROA
848 870 917

DEITU EDO BISITATU
www.bertako.eus

DURANGO • EKAITZ HERRERA

LABek "sindikalgintza antirrazista bat lantzeko" jardunaldiak egingo ditu zapatuan. Durangon egingo dituzte saioak, institutuan, eta honako erronka hau izango dute esku artean: langile subjektu guztientzako sindikatua izatea. Jardunaldi antirrazista koordinatzen dabiren kideetarikoa bat Josefina Roco da, LAB sindikatuaren Ekintza Sozialerako kidea. Dioenez, sindikatuak orain bost bat urte ekin zion antirrazakeria bultzatzeko proiektuari, eta Durangokoak mugarririk txiki bat ipiniko du norabide horretan. "Gaur egungo behargin subjektua anitza da eta horrek, sindikatu modura, erronka berri bat planteatzen digu. Orain urtebete prozesu konkretu bat hasi genuen. Langile migratzaile eta arrazalatuarekin egoeraren diagnostiko moduko bat egin genuen. 120 bat langilek parte hartu zuten. Lehen sektoreari loturiko lanak, kontserba-industriakoa, arrantza, etxeko lana, eraikuntza, merkataritza... sektore horietan handiagoa da behargin migratzaile

LAB sindikatuak aurreiritzi arrazistak deseraikitze saioa egingo du zapatuan

Durangoko Institutuan egingo dituzte jardunaldiak. Mahai-inguru, tailer eta topaketen bitartez, "sindikalgintza antirrazista bat lantzea" dute helburu. Saioak 10:30ean hasiko dira



Langile migratu eta arrazalatuak LABen egoitzan.

eta arrazalatuaren presentzia. Eta eurekin lan ildo berri bat diseinatzen hasi ginen", azaldu du Josefina Rocok. Dena dela, LABen bide orria

ez da behargin arrazalatu eta migratuei bakarrik begirako lanketa; zabalagoa da. "Aurretik daukagun lanketa integrala da. Dinamika sin-

dikatuko egitura osora zabalduko da. Ordezkariegana, liberatuegana, arrazalatuak eta migratzaileak ez diren beharginengana. Eta

gaia arlo askotan jorratuko dugu. Berdin lanketa juridikoa eginda, eta berdin barneratuta ditugun aurreiritziak deseraikitze lana eginda", zehaztu du Rocok.

Programazio zabala

Durangoko Institutuan egitekoak diren jardunaldiak 10:30ean hasiko dira. Batetik, borroka eta antolaketa kolektiboari begirako esperientziak partekatuko dituzte Huertas de Peralta (Nafarroa) enpresako beharginekin eta Bizkaiko etxeko langileen eta zaintzaileen kolektiboagaz. Bestetik, Atzerriartasunaren Legea saihesteko tailerra eskainiko dute, eta, horren ondoren, bazkari herrikoa, azoka antirrazista eta ekitaldia izango dituzte. Musika ere ez da faltako. Arratsalde partean, Celeste Agüero, Cristian Vergara, Perkuneskak, Beto Asnari eta Follow The Party Bilbao musikariek kontzertuak eskainiko dituzte. Ramadana egiten dabilzan kideek bianda bat jasoko dute, bueltako bidaian jateko.

Aparkaleku eta zikinkeria arazoak "ahalik eta lasterren" konpontzea eskatu du DAZek

Durangoko Udalak asteburuetako aparkalekuak "baliogabetu" dituela eta, garaje-plazarik ez duten bizilagunek aparkatzeko "zailtasun handiak" dituztela dio DAZ elkarteak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Alde Zaharreko bizi-lagunen elkarteak (DAZ) aparkalekuaren arazoari eta Alde Zaharrean pilatzen den zikinkeria arazoei heltzea eskatu dio udalari. DAZen berbetan, udalak "orain arte zeuden aparkalekuak baliogabetu" ditu asteburuetan, eta horrek "zailtasun handiak" ekarri dizkie garaje-plazarik ez duten bizilagunei. Zaratari eta zikinkeriarik buruz ere, beste horrenbeste. "Gehiegizko zarata" sortu eta "espazio publikoak zikindu" egiten direla eta, arazoak "aurreikusteko" eskatu dio udalari. Edukiontzia eta txizatokiak ipintzea eskatu dute, eta "udaltzaingoren zein Ertzaintza-



Artekalea. Durangoko Alde Zaharreko kaleetarikoa bat.

Andoni Mujika euskaltzalea eta ekintzailea hil da

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Asteon Andoni Mujika Ulazia hil da, 58 urte zituela. Durangarra jaiotzez, urte asko egin ditu Debagoienean; Arrasaten lehenengo, eta Eskoriatzan azken urteotan. Euskaltzale eta ekintzaile durangarra Kurutzia eta Ibaizabal ikastoletako zuzendaria izan zen; baita Leintz bailarako Arizmendi ikastolako

presidentea ere. Berbaro euskara elkartearen sorreran "ezinbesteko motorea" izan zela gogoan du Gorka Barruetabeñak: "Profil askotako jendea batu zuen Berbaroren moduko egitasmo bat martxan ipintzeko. Eraz aldizkariaren bultzatzailea izan zen, euskalgintzan langile nekazena. Gainera, beti umore onagaz lan egiteko prest egoten zen".



anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko apirilaren 8a
20. urtea - 889. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

'Gazte KZK' jaio da, gazteengan jarduera fisikoa sustatzeko programa

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak eta Ekana Medikuntza eta Kirol zentroak proiektu berri bat hasi dute Durango gazteen artean kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko. Elkarlanak *Gazte KZK* du izena eta hainbat tailer eta egitasmo barnebilduko ditu. Kalistenia tailerra, running eta trail running irteerak, kirolari loturiko nutrizio tailerra, yoga tailerrak, HIIT saioak, kirol egokituko saioak, mendi irteerak eta erakusketak antolatuko dituzte, besteak beste.

Ikastaroetan izena eman gura duenak nahikoa du durango.eus edo ekana.es/kzk web guneetara jotzea. Bertan topatuko ditu aktibitate bakoitzaren xehetasunak eta egutegiak. Honako telefono zenbaki hauek ere eskuragarri daude: 946 030 030 eta 630 815 243. Ane Abanzabalegi eta Jorge Varela zinegotziek diotenez, "proiektu honen bitartez aukera berri bat" eskaini gura zaie Durango gazteei.

Gure Zirkuak Durangon ekingo dio denboraldi berriari, maiatzaren 6an

Maiatzaren 6tik 22era hamalau emanaldi eskainiko dituzte Otamotzena parkeko karpan. Sarrerak salgai daude

DURANGO • JONE GUENETXEA

Orain arte ez da eskualdean egon, baina euskarazko zirkuak, Gure Zirkuak, Durangon egongo da maiatzean. Iker Galtza aktore eta umoregilea buru duen zirkuak Durangon hasiko du denboraldi berria. 2022ko birako lehenengo 14 emanaldiak Otamotzena parkean eskainiko ditu: maiatzaren 6an, 19:00etan; maiatzaren

7an, 16:30ean eta 19:00etan; maiatzaren 8an, 12:00etan eta 18:00etan; maiatzaren 13an, 19:00etan; maiatzaren 14an, 16:30ean eta 19:00etan, maiatzaren 15ean, 12:00etan eta 18:00etan; maiatzaren 20an, 19:00etan; maiatzaren 21ean, 16:30etan eta 19:00etan, eta maiatzaren 22an 12:00etan.

Emanaldietarako sarrerak gurezirkua.eus atarian daude salgai.



Gure Zirkuo lantaldea.



Krabelinak eta aitortza-agiriak banatu zizkieten hobi komunetan lurperaturikoen senideei.

Zor zitzaizkien duintasuna eta aitortza jaso dituzte

Gerediagak eta Kriskitinek aitortza publikoa egin diete hilerriko hobi komunetan lurperaturikoei eta haien senideei

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Andra Mariko elizpea jendez lepo bete zen Martxoaren 31ko oroiaren ekitaldian. Gerediaga elkarteak eta Kriskitin dantza taldeak aitortza berezia egin zieten bonbardaketaren osteko eguntan kanposantuko hobi komunetan lurperaturikoei eta haien senideei. Ekitaldi hunkigarria

izan zen, musikaz, memoria historikoa lantzeko aldarriez eta dantzaz beterikoa. Gerediagako eta Durango 1936 kultur elkarteak kideek krabelinak eta aitortza-agiriak banatu zizkieten hobi komunetan lurperaturikoen senideei, eta horixe izan zen ekitaldiko momenturik hunkigarriena.

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Matrikulazioa : Apirilak 11tik maiatzak 9ra arte



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑO KO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10
ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62
ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABI KO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behe
MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7
ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5
IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑO KO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7
ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus

• www.haurreskolak.eus •

Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Abadiñoko Udalak Laubideta ingurua osorik eraberrituko du

Udalak soluzioa ipini gura dio auzotarren urteetako eskariari. Laubidetako planak 4 fase izango ditu guztira

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Auzotarren urteetako eskariari irtenbide bat emateko asmoz, Abadiñoko Udala Laubideta ingurua osorik eraberritzen hasi da. Azaldu dutenez, hileak daramatzate Traña-Matienako hirigintza arloko "eraberritze proiekturik garrantzitsuen" lantzen, eta heldu da lan horiei hasiera emateko

teko unea. Proiektuak Laubideta kaleko zatirik zaharrenaren berrikuntza integrala ekarriko du; bideko zorua berrituko dute, irisgarritasuna hobetuko dute eta inguruko oztopo arkitektonikoak kenduko dituzte. "Lan hauekin, auzokideentzat ingurune lagunkoiagoa ahalbidetu gura dugu", azaldu dute udaletik.

Laubideta inguruko planak lau fase izango ditu, eta orain, apirilean, 0 faseari ekingo diote. Plan horren barruan Laubideta kaleko 8. zenbakiaren partean oinezko pasabide bi egitea ere aurreikusten direla azaldu dute, San Blas ostatuagaz lotura egingo dutenak. "Tramitazioa konplikatu da, aurrekontu handiko obra bat da, baina lurzoruen kudeaketan lanean gabiltza. Aurrerapausoak eman ahala, lehenengoak izango gara herritarrei informazioa ematen", azaldu du Javier Crespo alkateordeak.

Bestalde, EH Bilduk batzar informatiboa egin zuen martitzenean. Laubidetako auzotarrei auzoaren etorkizunari buruzko informazio eguneratua helaraztea eta euren proposamenak jasotzea izan zen oposizio taldearen asmoa.



Laubideta ingurua.

Hamadako Izarrak sukaldean laguntzeko boluntario bila

Haur sahararrak ekainean etorriko dira Axpeko aterpetxera. Urte bian ez dira etorri, pandemiaren eraginez

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, pandemiak horrela eraginda, ume sahararrek berriro ere Euskal Herrira etortzeko aukera izango dute eskualdeko hainbat elkarteren laguntzagaz. Hamadako Izarrak elkarteraren eskutik aurtan 12 ume etorriko dira Atxondora, Axpen dagoen aterpetxera. Hamada Izarrak boluntario bila dabil sukaldean laguntzeko eta ume horiei jaten ematen laguntzeko. Interesa dutenek edo informazio

gehiago gura dutenek hamadakoizarrak@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

8 urteko umeak

Aurtan datorren haur taldea berria da, lehenengoz datoz Euskal Herrira. Garazi Etxebarria elkartereko kideak azaldu duenez, aurtan 8 urteko umeek hartuko dute ostatu Axpen. Durangaldera ekain amaieran heltzea aurreikusten dute, eta hile bian egongo dira bertan.



Elorrion umeentzako Kirol Astea antolatu dute, apirilaren 19tik 22ra

Kirol Astea parte hartu gura duten 6tik 12 urtera arteko gazteek aurrez izena eman beharko dute; izen-ematea telefonoz zein posta elektronikoz egin daiteke

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurtan ere, Kirol Astea antolatuta, Elorrioko Udalak 6tik 12 urtera arteko gazteek kirola modu ludikoan eta dibertigarrian praktikatzeko apustua egin du. Kirolaren bitartez, sozializazioa, laguntasuna eta aisialdi segurua bultzatu gura ditu. Horiek lantzeko, gaztetxoak txirrindularitzan, pilotan, herri kirolan eta saskibaloian arituko dira, besteak beste.

Izena eman beharko da parte hartzeko. Izen-ematea aurrez aurre egin daiteke udaletxean, Iturri Kultur Etxean edo kiroldegian, eta baita ere kirola@elorrrio.eus helbidera idatzita edo 688 77 10 22 telefono zenbakira deituta.



Kirol Astea 6tik 12 urtera bitarteko gaztetxoentzat da.

Ibilgailu astunak herrigunetik pasatzea mugatuko dute Atxondon

Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, kamioiak ezin direla herrigunetik pasatu jakinaraziko diote ADIFI

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, itzaroten zeuden txosten juridikoa jaso dute, eta, bertan agerienez, udalak ibilgailu astunen trafikoa antolatzeko ahalmena du. Hori horrela, Atxondoko Udalak herria zeharkatzen duten ibilgailu astunen sarbidea mugatuko du. "Herritarren ondoezaz jabetzen gara, baina, edozein erabaki hartu aurretik, gure erabakiak bermatuko dituen txosten juridikoa izan gura genuen", adierazi du Xabier Azkarate alkateak. Beraz, hemendik aurrera, ibilgailu astunek Atxondoko Udaleko baimen berezi batez baina ezingo dute herria zeharkatu.

Bestalde, ADIFI kamioiak herri erdigunetik ezingo direla igaro jakinaraziko diotela azaldu dute Atxondoko Udaletik, eta Ertzaintzari ere ebazpenaren

Atxondoko Udalak ohar bidez azaldu du ebazpenaren berri emango diola Ertzaintzari

berri emango diotela. Horrez gainera, herriko seinaleak dagoeneko aldatzen hasita daudela esan dute.



Ostalaritza gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Zornotza



XIBERU
Zezilia Gallartzagotia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

Durango



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Durango



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

Iurreta



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

Durango



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



ZALDIBAR • A.M.

"Zaldibarko goialdean bizi diren bizilagunentzat ezinbestekoa da instalazio hau, zentzura egunero azkar eta eroso joatea ekarriko du eta. Aurrerapen garrantzitsua da, oinezkoen mugikortasuna hobetzen duten inguruko herriekin parekatuko gaituelako", azaldu du Juan Mari Uriarte hirigintza zinegotziak ohar baten bitartez. Igogailuagaz ia hamaika metroko desnibela gaindituko da; 35 metroko pasabide bat edukiko du, gainera. Katikena zeharbidean ere obra egingo dute, inguruari "zabalera" emateko.


Zaldibarko Udalaren esanetan, Aszende S.L enpresari esleitu dizkiote obrak, eta 355.858,98 euroko aurrekontua dute; udal gobernu taldeak Jaurlaritzaren 201.065,87 euroko laguntza jasoko du obrarako, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beste laguntza bat lortzea itxarotu du.

2009ko Irisgarritasun Planean

Udala pozik agertu da igogailuaren proiektuagaz, izan ere, 2009ko Irisgarritasun Planean jaso zen proposamena. Zaldibarko hainbat bizilagun, baina, proiektuaren aurka agertu da azken urteetan. Horrela, udalak aurkezturiko azken proiektuari 38 alegazio egin zizkioten. Horrez gainera, proiektuaren aurkako bizilagunek hainbat kontzentrazio egin dute, dozenaka lagun batu dituztenak, eta sinadura bilketa kanpaina bat ere

Zaldibarko Elizondo kalea eta Katikena lotuko dituen igogailua eraikitzen hasi dira

Aszende enpresari esleitu dizkiote obrak; 356.000 euroko aurrekontua dute eta Jaurlaritzak ia 200.000 euro ipiniko



Igogailuaren infografía.

tuaren aurkako bizilagunek hainbat kontzentrazio egin dute, dozenaka lagun batu dituztenak, eta sinadura bilketa kanpaina bat ere

egin zuten. Sarritan, igogailuaren kokapena bera izan da eztabaidagai, igogailu bat egiteko proiektua bera baino gehiago.

Lurguia Fundazioak 500 arbola landare sartu ditu Garain

60 lagun ibili dira auzolanean arbola landareak sartzen. 1,2 hektareako arloa bete dute tokiko espezieekin

GARAI • EKAITZ HERRERA

Urteak beharko dira emaitzak ikusten hasteko, baina argi da goena da Garaiko lurretan bertako arbolekin osaturiko baso bat gehiago egongo dela etorkizunean. Lurguia Fundazioak 500 arbola landare berri sartu ditu Momoitio aldean. Familia baten jabetzakoa den arloan sartu ditu, alde bien arteko hitzarmena sinatuta. Haritza, urkia, haltza eta gorostia sartu dituzte, besteak

beste. "Lursailen jabea den familia pinudia izan du orain arte, egurraren industriari begirako arloa. Baina argi dute aurrerantzean baso bat izatea gura dutela", azaldu du Jon Hidalgo Lurguia Fundazioko presidentek. Arbola landareak martxoaren 26an sartu zituzten, auzolanean. Bizkai osotik, Gipuzkoatik eta Kantabriatik ailegaturiko 60 herritarrek parte hartu zuten landaketan.



Arbola landareak auzolanean sartu zituzten. Tokiko espezieak sartu zituzten.

Etixerako janari zerbitzua berriro martxan ipini gura dute Berrizen

Erabiltzaileek euren autonomiari eustea da zerbitzuaren helburua; 94 620 04 92 telefonora deitu behar dute




Berrizko udaletxea.

BERRIZ • A.M.

Berrizko Udalak kanpaina berria egingo du, etxerik etxe janari banaketa zerbitzua indartzeko. Erabiltzaileek euren autonomiari eusten laguntzea da zerbitzu honen helburu nagusia. Izan ere, 60 urtetik gorako berriztarrei zuzendurik dagoen zerbitzua da; zailtasun funtzionalak edo mendekotasunen bat duten herritar gazteagoak ere izan daitezke zerbitzuaren onuradunak. Zerbitzuaren bitartez, eguneko otordu nagusirako janaria prestatu eta etxerik etxe banatuko dute; onuradunek dieta pertsonalizatua izango dute eta elikadura ohituren jarraipena ere egingo zaie.

Eskaerak telefonoz eginiko hitzorduen bitartez izapidetuko dira; horretarako, Durangaldeko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetara deitu beharko da, 94 620 04 92 telefono zenbakira. Informazio gehiagorako, gizarte3@berriz.eus helbidera idatzi daiteke, edo 94 682 45 25 telefonora deitu. Udalak eskuorri bat bidaliko du etxe bakoitzera, informazio guztiagaz.



Webgune berria
daukagu,
sartu eta ikusi
www.dma.eus



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Rock-and-rollaren historiako artistak protagonista dituen erakusketa inauguratu dute Mañariko Herriko Tabernan

Bere ikuspegi pertsonalagaz, Eduardo Roncero margolariak Janis Joplin, Chuck Berry eta beste ikono asko irudikatu ditu

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Lau hilabete joan dira Mañariko Herriko Taberna berriro zabaldu zutenetik, eta arduradun berriek euren zigilu propioa ipini diote dagoeneko. Margolanen erakusketa bat antolatu dute eta urtea amaitu arte egongo da ikusgai.

Erakusketako hamabi lanak batzen dituen haria rock-and-rolla

da. Musika estilo hori sortzen eta garatzen lagundu zuten hainbat ikono dira protagonista: Chuck Berry, Little Richard, Elvis, Janis Joplin, Iggy Pop, John Bonham... Baina koadroak ez dira musikariaren ohiko erretratuak, sortzaileak haien inguruan egiten dituen interpretazioak baino. Eduardo Roncero da koadroen egilea. Ciudad

Realen (Gaztela-Mantxa, Espainia) jaiotakoa, Kantabrian bizi da gaur egun. Bere koadroetako ezaugarri bat bihurtuak dira eta *curvismo* deitzen dio bere proposamenari.

Herriko Tabernako arduradunetarikoa, Enrike De Costak, U2 taberna eraman du iaz arte, eta taberna horretako jai batean eza-gutu zuen Roncero. Harrezkero,

Erakusketa joan zen asteburuan inauguratu zuten eta urtea amaitu arte egongo da ikusgai

hartu-emanan izan dute eta koadro batzuk ere erosi dizkio. "Oso pozik gaude erakusketagaz. Taberna dekoratu egiten du eta baliteke etorkizunean ere gehiago antolatzea", adierazi du De Costak.



Erakusketako koadroak berritzen joan dira urtean zehar; batzuk kendu eta berriak ipiniko dituzte.

Hamazazpi gaztek parte hartu dute '0-2000' egitasmoko lehen irteeran

Lagatik Elantxobe ingurura joan ziren eta orientaziorako mendi teknikak lantzeko baliatu zuten irteera

MAÑARIA • J.D.

Martxo hasieran, Mañarian egitasmo berri bat ipini dute martxan gazteak mendiagaz eta zaltetan horri loturiko baliokin hartu-emanetan ipintzeko. Egitasmoa '0-2000' deitzen da eta erronka errazekin hasita apurka-apurka 2.000 metroko garaiera duen mendi bat igotzea da helburua. Lehenengo mendi irteera joan zen domekan egin zuten. Lagatik Ogoño mendia igo zuten, eta handik Elantxobera joan ziren. Guzti-

Maiatzaren 1eko irteeran, bigarrenean, herri ondoan dagoen Untzillatx mendia igoko dute

ra, hamazazpi gaztek parte hartu zuten: hamar mutilek eta zazpi neskek. Orientazioa eta bestelako mendi teknikak lantzeko erabili zuten irteera. Hurrengo irteera maiatzaren 1ean izango da eta Untzillatx mendia igoko dute.



Egitasmoan parte hartzen hasi diren hamazazpi gazteak lehenengo irteeran.

Itzuliko etapa amaierak trafikoan eta sarrera-irteeretan eragingo du gaur Mallabian

MALLABIA • J.D.

Itzuliko etapa amaiera Mallabian izango da gaur, eta herriko sartu-irteeretan izango duen eraginaren berri eman du udalak. Elizalde plazaren inguruko aparkalekuak antolakuntzak beteko ditu goiz-goizetik proba amaitu bitartean. Mallaldeko etxebizitzetara sartzeko erreieren zati bat, Antsoagagoikoa eta Antsoagabekoa aparkalekuak eta Arteiz, Roke Deunaren eta Kalbarioko aparkalekuak antolakuntzak beteko ditu proba amaitu bitartean. Azkenik, Goitondobekoa eta Goitondoerdikoa industrialdeetako bidearen zati bat ere okupatuko dute. Enpreetan sartzeko aukera eman go da, beharrezkoa deno.

Beste bultzada bat Otxandio parte den Ardoaren eta Arrainaren Ibilbideari

Jaurlaritzako Turismo Sailak material berria aurkeztu du Arabatik Bizkaiko kostaldea lotzen duen ibilbiderako



Egoitz Garmendia Otxandioko alkatea —ezkerretik hirugarrena— egitasmoa aurkezpenean.

OTXANDIO • J.D.

Otxandiotik pasatzen den ibilbideetarikoa bat GR-38 da, Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea lez eza-gutzen dena. 166 kilometroko ibilbide honek Araba eta Bizkaiko kostaldea lotzen ditu eta Otxandio-koa laugarren etapa da, Estibalizen hasi eta Otxandion amaitzen den 37 kilometroko etapa. Orain, Turismo Sailak beste bultzada bat eman gura dio ibilbide horri eta egitasmo horren berri eman dute asteon. Sustapen-material berria egin dute (eskuorriak, etapetako fitxak, mapa berria...) eta ibilbideak zeharkatzen dituen herrietan banatuko dute, Otxandion ere bai. Horrez gainera, promozio-bideoak sortuko dituzte, besteak beste.

Antzinako ibilbide hori Oiongo mahastietan hasi eta Bermeoko, Ondarroako eta Lekeitioko portuetaraino ailegatzeko da. Garai batean, portuetan mandoak arrainez kargatu, eta bueltan garia, gatz, ozpina eta ardoa ekartzen zituzten mandazainek erabiltzen zuten bide hori.

Iraileko jaietara begira argazkiak batzen dabilza Izurtzako Udalean

IZURTZA • J.D.

Aspaldiko partez, irailean jaiak ospatuko dituzte Izurtzan, eta udala pausoak ematen dabil jai horiek antolatzeko. Jaietako osagai bat Izurtzako argazki zaharren erakusketa izatea gura dute, eta, horretarako, laguntza eskatu diete herritarrei. Etxean argazki zaharrak dituen udalagaz hartu-emanetan ipini daiteke maiatzaren 30a baino lehenago. Argazki horiek erakusketa osatzeko balioko dute.

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa da jaietara begira martxan dagoen beste ekimen bat. Kasu honetan, proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 13a da. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Maila pertsonalean, sententzia "lasaigarria" izan dela dio. Baina epai "bidegabea" da bere esanetan, kontuan hartuta lau kidek kartzela zigorra jaso dutela. Espainiako Auzitegi Nazionalak hirutik zazpi urtera arteko kartzela zigorra ezarri die 13/13 epaiketan auziperaturiko lau euskal herritarri. Epailleak "erakunde terroristako kide" izatea leporatu die lauriei; eta absolbitu egin ditu beste hiru kide. Tartean, Saioa Agirre zornotzarra. Agirrek dio, bere kasuan, sententzia "lasaigarria" izan dela. Baina ez du zalantzarik epaia "injustua" dela esatean. "Sentsazio gazi-goza dut. Batetik, egundoko pisua kendu dut gainetik. Bestetik, oso kezkatuta nago gainerako kideengaitik. Daukadan sentipena da hamabi urtean eraiki behar izan dudana etxea apurtzea lortu dudala, baina etxeko hondakinak kanporatu barik ditudala oraindino", esan du.

Prozesu guztia "eskubide urraketekin josita" egon da, Saioa Agirreren berbetan. "Auzitegi Nazionalaren jarrera iraganeko estrategiari lotuta egon da. Eta iruditzen zaidana da Euskal Herrian beste heldutasun politiko batez jokatzeko gabiltzala. Testuingurua bestelakoa da. Bakea da, behingoz, gura duguna", dio. Arantza

"Sentsazio gazi-goza dut; egundoko pisua kendu dudana arren, gainerakoengaitik kezkatuta nago"

Epailleak 13/13 sumariotik absolbitu ditu Saioa Agirre eta beste kide bi. Beste lau kidek kartzela zigorra jaso dute



Saioa Agirre zornotzarra, Etxanoko plazan.

[Zulueta], Jon [Enparantza], Naia [Zurriarain] eta Iker [Sarriegi] elkarbizitzaren aldeko pausoak ematen lagundu dutelako kartzelaratu dituzte. Epai bidegabea dela uste dut", gaineratu du Agirrek. Zapatuan manifestazioa egingo

dute sententzia salatzen, Bilbon eta Donostian. Bilboko mobilizazioa 17:30ean irtena da, Jesusen Bihotza plazatik. Epai salatzeaz gainera, kartzeleratuko dituzten lau herritarrei elkartasuna adieraziko diete.

Airearen kalitaterako neurriak eskatu dituzte Iurretan

Airearen kalitateak arduratuta, EAJK eta EH Bilduk aurkezturiko mozio bana onartu du udalbatzarrek

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Airearen kalitateari buruz EH Bilduk eta EAJK aurkezturiko mozio bana onartu du Iurretako udalbatzarrek. Iurretan eta Durangaldean gaiak sorturiko kezka aintzat hartuta, airearen kalitate egokia bermatzeko neurriak eskatu dituzte.

Koalizio subiranistak Durango eta Iurretako airearen kalitatearen diagnostiko berri bat egin eta eskatu dio Jaurlaritzari, "Durangoko Udalak eta Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hautemandako bentzeno kontzentrazio handien fokua identifikatzeko". Bestalde, airearen kalitateari dagokion parametroak "eguneratzea" ere eskatu du, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dituen balioak aintzat hartuta; atmosferako kutsadura-gertakien aurrean herritarren osasuna bermatzeko jarduketako protokolo berri buruz legebiltzarrean onarturiko akordioak betearaztea ere eskatu du.

EAJK, bere aldetik, maiatzean Ingurumen Iraunkortasuneko Sailburuordetzagaz egindako batzarrean adosturiko neurri guztiak betetzea eskatu du. Horrez gainera, herritarrentzat informazio saio bat antolatzea eskatu dute jeltzaleek, airearen kalitateari buruz eta aurrerantzean airearen kalitate ona bermatzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurri berri buruz "gardentasunez" informatzeko.

Maiatzean adosturiko neurriak betetzea eskatu dio EAJK jaurlaritzari; EH Bilduk diagnostiko berria

Alderdi biek diote lan-mahai tekniko bat sortu behar dela; EAJK-ren berbetan, "eskualdeko aire kalitatearen egoeraren etengabeko jarraipena egiteko". EH Bilduk zehaztu du mahai horretan Ingurumen Saileko, udaletako eta erakunde ekologistekako ordezkariak egon behar direla.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta



Franco eta Mola Otxandioko herrigunean.

Memoria historikoa

1937ko apirilaren 6a: Franco eta Mola Otxandion

OTXANDIO • JONE GUENETXEA

85 urte bete dira faxistek Otxandio hartu zutenetik. 1937ko martxoaren 31n Mola generalak Iparraldeko Frontea menderatzeko ofentsibari ekin zion. Otxandiotik eta Ondarroatik hasita, Asturiaseraino zabaltzen zen frontea. Erreketeen eta milizianoen batailoien arteko lau eguneko borroken ostean, apirilaren 4an, erreketek Otxandion sartu ziren. Garaipen militar horretarako, faxistek abiazioaren lagun-

tza izan zuten. Otxandion eta inguruetan 400 hildako izan ziren eta ehunka miliziano preso eramane zituzten. Borroka horien ondoren, Otxandio menderatu eta gero, Francisco Franco eta Emilio Mola generalak Otxandio bisitatu zuten, apirilaren 6an. Argazki honetan soldadu artean ageri dira biak, Otxandioko herrigunean. Egun horretako lekuko izan zen argazkia Jon Irazabali eskerrak eskuratu du ANBOTOK.

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



'Egiak ez ditu bi bide'

Ingurumena da egungo erronka potoloenarikoa. Aste honetan Europako sektore eolikoak Euskadin izan du hitzordua "Wind Energy Basque country" ekitaldian. Mundu osoko zientzialariak ere ikusten ari gara klima-borrokan egiturazko aldaketak lortzen saiatzeko mugimenduan.

EAJtik ere horretan ari gara aspalditik. Beti arduratu gara ingurumenez eta osasunaz. Durango aitzindari bihurtu genuen mugikortasun iraunkorraren eta eraginkortasun energetikoaren arloan.

Eta horretan jarraitzen dugu. Aste honetan aurkeztu dugu Durangaldeko Mankomunitateak egindako ingurumen-diagnostikoa. Bertan, lurraldearekin, biodibertsitatearekin, mugikortasunarekin, lurzoruaren kutsadurarekin, eta baita ere airearen kalitatearekin lotutako adierazleak aztertu dira, besteak beste. Behin egoera aztertuta, gure ibilbide orria diseinatu dugu, udalen ekintzen bidez ingurumenarekin erlazioatutako alderdiak hobetu eta eskualde jasangarriago baterantz aurrera egiteko.

Ingurumen-alderdien artean dago airearen kalitatea ere. 2006tik airearen kalitateari buruzko 12 kanpaina burutu izan dira Durangon eta Durangaldean. Eta orain ere jakin badakigu Eusko Jaurlaritzak lanean jarraitzen duela airearen kalitatea kontrolatzeko eta hobetzeko. Baina lan egitea bezain garrantzitsua da hartu diren neurrien eta horien emaitzen berri argi eta garden ematea. Batzuk zarata ateratzen eta fokua desbideratzen saiatzen diren bitartean, gure informazio guztia era objektiboan ematea eskatzen diogu Jaurlaritzari, herritarrei irekia izango den saio publiko batean, bertan egia osoa atera dadin. Esaera zahar batek dioen bezala 'Egiak ez ditu bi bide'. Bien bitartean, gure lanean jarraituko dugu Durangon eta Durangaldean, bai udaletik, bai Mankomunitateetik, gure esku duden ekintzetatik gure ingurumena hobetzen jarraitzeko.

Durangaldea asteen



Euskararen aldeko aldarri eta oihuek Durangaldeko kaleak bete dituzte

DURANGALDEA | 22. Korrikak jendetza batu zuen Durangaldean bariku goizaldean, eta euskararen aldeko ekimen erraldoiak eta euskararen aldeko aldarriek gure eskualdeko kaleak bete zituzten. Korrika Zornotzatik sartu zen Durangaldean, eta hainbat herritatik ibili eta gero, 09:00 inguruan irten zen eskualdetik, Mallabitik.

Durangaldeko Mankomunitateak 2030era bitarteko bide orria aurkeztu du

DURANGALDEA | Asteon, Mireia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentek, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak eta Orlan Isoird Berrizko alkateak 2030era bitarteko bide orria aurkeztu dute. Durangaldeko herrietan egin beharreko hamazazpi hobekuntza ekintza batu eta txosten batean aletu ditu Mankomunitateak.



Berton Bertokoak tokiko elikaduragaz konprometituriko eragileak saritu ditu

DURANGALDEA | Tokiko elikaduraren aldeko dinamikak sari banaketa egin zuen joan zen barikuan, Arriola antzokian. Umorea, musika, dantzak eta aldarrikapenak batu zituzten galan. Antzokia lepo egon zen, jendez, musikaz, dantzez eta aldarrikapenez goraino. Baina baita trajez, apaingarriz eta umore onez beteta. Galan, proiektuagaz konprometituriko hainbat eragilek jaso zuten saria. Tartean, hedabide honek. Berton Bertokoak ANBOTO saritu du, dinamikaren aldarrikapenak ikusgai egiten laguntzeagaitik.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Errezitaldia / Aurkezpena

Leire Vargas: "Dena ametsa den irudipena" &

Oihana Arana: "Lazunak azkazaletan"

Apirilak 12, martitzena, 19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

OXFORD
UNIVERSITY PRESS
Exam Preparation Centre

Oxford Test of English


- Azterketa baiar batean zurratzen ditu A2, B1 eta B2 mailak.
- Ibaizabal ikastolan - Apirilaren 28an, 15:45ean
- Matrakua egiteko epemuga: Azirliak 15
- Informazio guztia eta izen ematea

IBAZABAL IKASTOLAren webgunean



San Prudentzio Jaiak 2022

Apirilaren 27tik maiatzaren 8ra arte
Gora Abadiñoko Jaiak!



www.abadiño.org



San Prudentzio jaiak 2022

Apirilak 27, eguztena

18:00 Kuadrilla guztien bilera Trañaiko zubian Donien Atxa ekartzeko.

20:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Ustekabe fanfarrea, Iluntze** taldearen dantza saioa, eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

Apirilak 28, eguena, SAN PRUDENTZIO

11:00-14:00 Abentura Parkea Traña plazan.

12tik16 urtera artekoentzat.

16:00-18:00 Abentura Parkea Traña plazan.

12tik 16 urtera artekoentzat.

17:30 Familia antzerkia, 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' (Gorakada antzerki taldea), Errota Kultur Etxean. 6 urtetik aurrera. Gonbiteak eskura egongo dira apirilaren 19tik aurrera Errota Kultur Etxean (gehienez 4 sarrera pertsonako).

Apirilak 29, barikua

17:15 Haurrentzako entzierroa Traña plazan.

19:30 Txupinazoa txosnen gunean Abadiño Sokatira taldearen eskutik. Ondoren, parrillada Traña plazan.

22:00 Kontzertua: Marabao y Tú (Platero y Tú tributua), Pedrá (Extremoduro tributua) eta Kaos Etiliko, Traña plazan.

Apirilak 30, zapatua

10:00 Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian. Fexmack taldeak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria Traña plazan. Ondoren, **kuadrillen arteko jokoak** Traña plazan. Txosna batzordeak antolatuta.

19:00 Mozorro kalejira Sugarri fanfarreak alaituta Trañabarren kalean.

20:00 Kontzertua: Lua Madi, Traña plazan.

22:15 Ikuskizun piro-musikala. Tren geltokiaren ondoan. Euria edo haizea bada, hurrengo zapatua atzeratuko da.

23:00 Jaialdia: Akerbeltz, Traña plazan.

Atsedendian, **playback-a.** Txosna batzordeak antolatuta.

23:00 Kontzertua: Dj Danny Meip, Dj Cristian Piornedo, Dj Dani Borge eta Dj Andoni Pacheco, Trañabarren etorbidean.

Maiatzak 1, domeka

Goizean, Geu Be taldeak Eusko Labeloko txahal bat erreko du Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

10:00 Artisautza azoka eskoletako aterpean. Abadiño emakume artisau-sortzaileak antolatuta.

12:00 Herri kirolak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketako finala. Sociedad Pelotazale Atxartek antolatuta.

17:30 Magia ikuskizuna Imanol Ituiñoren eskutik Traña plazan.

Maiatzak 6, barikua

16:45 Txiki merienda merkatu plazan.

17:15 Diskofesta: Dj Kaktus merkatu plazan.

21:30 Kontzertua: Gozategi, State Alerta eta Estutu, Traña plazan.

22:00 Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: **Igor Elortza, Jone Uria, Amets Arzallus eta Txaber Altube.** Gai jartzailea: **Igor Galarza.** Gonbiteak eskura egongo dira apirilaren 25etik aurrera Errota Kultur Etxean (gehienez 2 sarrera pertsonako).

Maiatzak 7, zapatua, GAZTE EGUNA

11:30 Izena ematea paella txapelketan merkatu plazan.

12.30 Iluntze dantza taldearen kalejira eta alardea Traña plazan. Euria bada, frontoian.

14:30 Txupinazoa eta herri bazkaria Traña plazan. Ondoren, **GAZTE EGUNEKO jokoak** Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

16:00 Ugasio txapelketa, merkatu plazan.

17:30 Izena ematea tortilla txapelketan merkatu plazan.

18:30 Kalejira Sakatu taldeagaz. Txosna batzordeak antolatuta.

22:30 Kontzertua: Nikotina, McOnak, Dj Txusti eta Inshore Music, Traña plazan.

23:00 Jaialdia: Macro Km 69, Trañabarren etorbidean.

Maiatzak 8, domeka

11:00-13:30 Umeentzako jolasak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

13:30 Perretxiko pintxoaren dastatzea Pinoko plazan. Geredixa mikologi elkarteak antolatuta.

14:00 Jubilatuen bazkaria. Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta.

16:00-19:30 Umeentzako jolasak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

17:30 Show cooking eta Txiki Txef Zigor Iturrietagaz Traña plazan. Txosna batzordeak antolatuta. Janari eta arropa bilketa solidarioa Zaporeak elkartearentzat.

20:00 Donien Atxa kentzea.



VANCOUVER

 Bar - Cafeteria

 Berezitasuna askotariko pintxoetan. Rabak asteburuetan eta jaiegunetan.

 Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA

 Tel. 94 681 70 39

FERRETERÍA ATXA

 BURDINDEGIA

 Julen Arriaga Rodriguez

 Trañaetxoste, 5

 Tel.: 946 816 549

 ferreteriaatxa@hotmail.com

petite

 LIBURUDENDA

 PRENTSA

 LIBURUAK

 ALDIZKARIAK

 Loteria salmenta

 Zubibiltarte, 11 - Tel.: 946 810 438 - Matiena (ABADIÑO)

DIBA

 KOOPERATIBA

 Durangaldeko Baserritarren Elkarte

 Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

JAI BATZORDEA • I.G. / J.G.

Traña-Matienako jaiak buru-belarri antolatzen dabilta. Urte biko etenaldiaren ondoren, jai batzordeak egitarau zabala antolatu du. Ane Urien, Iliia Vazquez eta Jon Azagirre talde horretako kideak dira.

Zelan joan da jaien prestaketa prozesua?

Jon Azagirre: Orain hile bi inguru, aurkezpen bat egin zen Traña-Matienako jaiak normaltasunez egin ahalko zirela esateko. Harrezkero, astero batzen ibili gara.

Iliia, lehenengoz zabilta jai batzordean. Zelako esperientzia izaten ari da?

Iliia Vazquez: Oso esperientzia ona. Herriarentzat gauzak egin eta proposatzea motibazio handia da.

Mundu guztiak du lekua jai batzordean. Norbanakoez, eragileez, elkarteez, taldeez...

Nortzuek osatzen duzue jai batzordea?

J.A.: Mundu guztiak du lekua jai batzordean: norbanakoez, eragileez, elkarteez, taldeez... Deialdi zabalak egin ditugu eta interesa izan duenak parte hartu du.

Ane eta Jon, zuek esperientzia duzue jai batzordean. Igarri duzue aldaketarik urte biren ondoren?

Ane Urien: Parte hartzea handiago izan da. Orain arte txosna batzordetik ordezkari bat joaten zen, eta gero informazio hori txosna batzordean zabaltzen zen. Aurten,

“Parte hartze handiagoa izan da jai batzordean. Gazteek hainbat ideia proposatu dute”



gazteek hainbat ideia proposatu dute. Gazte asko etorri da.

J.A.: Egoerak baldintzatuta, aurten berandu hasi gara jaiak prestatzen. Aurreko urteetan, jai batzordearen indarra murrizten joan da eta orain jende gaztea sartu da. Azken urteetan izan dugun jai gabeziak gogo hori piztu duela esango nuke.

Maiatzaren 1a domeka denez, ospakizun egunak gutxitu egin dira aurten. Igarri duzue hori?

J.A.: 2020ko gauza asko ezin izan ziren egin eta aurtengorako utzi dira. Horrek egitarauan sartzen baditugu gauza berriekin batera, kontuan hartuta egun bat gutxiago dugula... Azkenean, konplikatu izaten da.

Zer nabarmenduko zenukete egitarautik?

A.U.: Aurten zapatu potolo bi ditugu. Mozorro Eguna, Paella Eguna eta Gazte Eguna ditugu.

J.A.: Donien Atxa jasotzeko unea, dena hasten delako hor.

Jaien denboraldiko lehenengo jaiak izango dira. Gogotsu zaudete?

I.V.: Gogotsu, bai.

A.U.: Lar gogotsu.

J.A.: Jairik barik sozializatu barik egon gara, etxean sartuta. Horrek gogo berezia sortzen du aspaldi bizi ezin izan dituzun bizipenak bizitzeko. Bestalde, Traña-Matienako jaiak beti izan dira erreferentzia, inguruko lehenengoak direlako.

GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
LORAK - PENTSUAK - BARATZA
TRANA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA
TEL.: 94 681 66 87
C/ ZUBIBITARTE 14
E-mail: gisasola.p@gmail.com

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXeko ALTZARIAK

Polígono Urbitarte, 6 - Local 3 - 48220 Abadiño - Tel.: 94 620 26 56 - abadiano@arriandi.com
www.santosarriandi.com

EROSKI bidaiak
Trañabaren 11, behea
Matiena
Tel.: 944 019 767- 688 739 254
v2679@viajeseroski.es

ELECTRICIDAD EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo. 115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

neumáticos ETXEBARRIA

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com

NEUMÁTICOS ETXEBARRIA

ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO

Urtero legez, aurten ere saltsarik saltsa ibiliko dira Miguel Angel Munitxa Narbaiza eta Fermin Zubero Mañarikua jaietan. Parrilladan lehenengo, paella txapelketan gero, tortilla txapelketan segidan... Makina bat ekimenen antolakuntzan parte hartuko dute.

**Jaietako lehenengo asteburuan egu-
nero dituzue zereginak. Barikuagaz
hasiko gara: txosnetako txupina-
zoaren osteko parrillada prestatzen
ibiliko zarete.**

Fermin Zubero: Taldean egingo du-
gu. Saiheskia edo ekartzen dutena
prestatuko dugu.

Miguel Angel Munitxa: Gogorra izat-
en da, e? Ilara luzeak sortzen dira.

**Kozinatzea ala jendea atentitza da
gatxagoa?**

M.A.M.: Atentitza! Kozinatzea ez
da gatxa; lasaia da, baina jendea ila-
ran pilatzen hasten denean...

F.Z.: Aurten hobeto ibiliko gara,
parrilla berriak ekarri dituzte eta.
Plantxa eta parrilla berriak izango
ditugu.

**Zapatuan hitzordu bi dituzue. Lehe-
nengoa, paella txapelketa.**

M.A.M.: Bai, goizetik hasiko gara.
Mahaiak eta aulkiak banatzen,
izenak hartzen...

**Ez da lan glamurosoa, baina behar-
bada bai epaimahaikoa baino erra-
zagoa.**

M.A.M.: Epamahaiko lanak badau-
ka bere zera, bai. Gugaz batera,
urtero pare bat gazte ekartzen
ditugu ikusi eta ikasi dezaten.
Paelletan hiru alderdi puntuatzen
ditugu: presentzia, gustua eta arro-
zaren puntua.

F.Z.: Normalean, paella kontuetan
ez da arazorik egoten. Beste kontu
bat da tortilla txapelketan, egun
berek arratsaldean. Batzuetan,
jendeak lehiaketako oinarrietan ez
dauden osagaiak sartzen ditu. Bat-
zuk zartaginean txorizoa frijitzen
ikusi nituen behin, eta olio beragaz
patatak frijitzen gero. Edo piperrak
sartzen dituzte. Gero eurek jaten
dutenez, euren gustura egiten dute.
Tira, lagun arteko ekimenak dira,
ondo pasatzea da helburua eta ho-
rrela hartu beharra dago.

M.A.M.: Batzuek tortilla txikia
aurkezten dute, eta mehe-mehea...

“Paella dela, tortilla dela... jatekoa dagoen lekuan, han inguruan ibiltzen gara beti jaietan”

Miguel Angel Munitxak makina bat urtean kozinatu du Taberna Zarra jatetxean, eta Fermin Zubero gertutik ezagutzen du Lanoste txokoko sukaldea, 40 urtean baino gehiagoan



Aurtengo oinarrietan, zortzi arraut-
zako tortillak izan behar dutela
zehaztea nabil pentsatzen.

**Zelakoa izan behar du tortillak? Gutxi
egindakoa ala ondo egindakoa?**

M.A.M.: Bakoitzak bere gustura
egin dezala, baina barrua bero egon
dadila. Tortillaren puntua ez dugu
hainbeste begiratzen. Horretan
malguak gara, baina gutxienez be-
ro egon behar du. Kuriositatea bat:
tortilla bertoko arrautzekin eginda
badago, barrua lehenago gogortzen
da. Kanpokoekin baino lehenago.
Ez dakit zergaitik izango den, baina
horrela da.

**Parte-hartzaileek presiorik egiten
dizute euren paella edo tortilla au-
keratzeko?**

M.A.M.: Inoiz bai, baina guk ez
dakigu zein den zeinena. Eta egun
horretan ez dugu tortillarik edo
paellarik egiten.

F.Z.: Bazkaltzen ere ez gara ge-
ratzen. Inork ere ez dezan esan
honen eta bestearen lagunak ga-
relako irabazi dutela.

**Gazteei erakusten zabilatzela esan
duzue. Erreleboa gertu dago?**

M.A.M.: Orain urte gutxi, gazte
batzuek antolatu zuten eta gu
laguntzera baino ez ginen joan.

Amaitu zen eguna, eta ez zuten
berririo antolatzeko gogorik. Goi-
zeko zortzietan hasi eta iluntzeko
bederatzieta amaitu... gogorra
egiten da.

F.Z.: Guretat ere nekagarria da,
baina askotan egin dugu eta ondo
moldatzen gara.

**Eta asteburua errematatzeko, do-
mekan perretxiko pintxoekin ibiliko
zarete.**

M.A.M.: Bai. Jatekoa dagoen le-
kuan, han inguruan gabilta beti.
Paella dela, tortilla dela...

F.Z.: Geredixa elkarteagaz perre-
txiko pintxoak ematen ditugu.

Aurten euro bat izango da pintxoa
eta edaria. Ez da kobratzeagaitik, e?
Baina, bestela, batek igual bost edo
sei hartzen ditu... denei heltzeko
egingo dugu.

**Zuek perretxikoak eta ondoak ditu-
zue gurago?**

F.Z.: Nik martxoko ezkoa perretxi-
koa dut beste ezer baino gurago,
'marzuelo' gaztelaniaz.

M.A.M.: Segun zelan prestatuta
dagoen. Baina niretzat urretxak eta
gibelurdinak dira onenak.

F.Z.: Bai, nik ere berdin, martxoko
ezkoaren atzetik urretxak eta gibe-
lurdinak.

**Urte bian ez da jairik egon. Giroa be-
tikoa izango dela uste duzue?**

F.Z.: Seguru baietz, bigarren aste-
buruan batez ere. Hileko lehenengo
asteburua da, jendeak kobratu
du eta seguru jende asko etorriko
dena.

**Epaimahaiko lanak
badauka bere zera.
Urtero gazte bi
ekartzen ditugu, gugaz
ikusi eta ikasi dezaten**

M.A.M.: Hemengo jaietan zerbait
seguru badago, horixe da, jende
asko etorriko dela. Lehenengo as-
teburua gehiago izaten da berta-
ko jendearentzat. Guk jatetxean
[Taberna Zarra jatetxekoa da] de-
na beteta dugu lehenengo astebu-
rurako, eta auzokoak dira denak.
**Kozinatzea hainbeste gustatzen
zaizuenez, Masterchef-en antzeko
programarik egin balitz euskaraz,
animatuko zinatekete parte hartze-
ra?**

M.A.M eta F.Z.: Ez.

F.Z.: Horrelako programek gauza
negatibo bat dute. Beti dago baten
bat besteen gaintik agintzen eta
zarata egiten. Hori ganorabako
bat izatea da. Gauzak hobeto edo
txartoago irtengo dira, baina
horrela zarata egin? Hori ez da
edukazio onekoa.

M.A.M.: Nik badakit zer gura
dudan, eta ez da hori. Guk geure
sukaldaritza egiten dugu eta po-
zik gaude.

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

federópticos
Apraiz

**ONDO PASA
JAIETAN!**

Trañabarren 13, behea (Abadiño) - www.federopticasapraiz.com/es

**Cafetería
Oxford**

MATIENA-ABADIÑO

ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)



Izpilikuak taldeko kideetako batzuk

"San Prudentzio jaietan eta txosnagunean giro feminista sortzea denon ardura da"

TXOSNAGUNEA • M. ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, bueltan dira Traña-Matienako jaiak eta, jaiekin batera, bueltan da sanprudentzioetako txosnagunea. Aurten ere, kioskoko plazan ipiniko dute txosnagunea; guztira, sei txosna izango dira. Euretari bi eragile berri bik ipiniko dituzte, orain arte Traña-Matienako jaietan txosnarik ipini ez duten bik, hain zuzen ere.

Abadiñoeko neska gazteen Izpilikua talde feminista da txosna lehenengoz ipiniko duen talde horietariko bat, eta bertako kideak "gogotsu" daude. "Gogotsu gaude jaietarako. Pandemia hasi zenetik, inguruetako jaietako lehenengo txosnagunea izango da gure herrikoa eta jende asko itxaroten dugu. Beraz, guretzat jai giroan "gozatzea" izango da garrantzitsua, "denok gozatzea eta denok eroso sentitzea".

Izpilikua taldeko kideek txosnagune feminista sortzearen garrantzia azpimarratu gura izan dute. "San Prudentzio jaietan eta txosnagunean giro feminista sortzea denon ardura da. Emakumeok kontzertuetako lehenengo lerroetan ere egon gura dugu, lasai dantza egin gura dugu eta hori bermatzea denon ardura da", jarraitu dute.

Bestalde, emakumea espazio guztietan presente egotea garrantzitsua dela azpimarratu dute, baita eszenatokian bertan egotea ere. Eta horixe nabarmendu dute, hurrengo aldietan agertokian neska gehiago ikusi gura luketela. "Jaiak antolatzerako orduan, ikuspegi hau denok izan beharko genukeela presente uste dugu", gaineratu dute.

Horrez gainera, aurtengo jaietan, beste herrietan lez, erasoen aurkako protokolo bat izango dutela jakinarazi dute. "Protokolo hau martxan ipini behar ez izatea gura genuke. Baina zeozer gertatuz gero, argi eduki erantzun bat emango dugula", amaitu dute Izpilikua taldeko kideak.

Mugimendu sozialista

Abadiñoeko talde feministakoak ez dira Traña-Matienako jaietan

estreinatzen diren bakarrak izango. Abadiñoeko eta Durangaldeko Mugimendu Sozialistak ere lehenengoz hartuko du bere lekua San Prudentzio jaietako txosnagunean. "Hala ere, ez da lehenengo aldia Traña-Matienako jaietako txosna batzordean parte hartu duguna. Orain urte biko jaietan, ospatu ez ziren jai horietan, jaien antolakuntzan eta txosna batzordean egon ginen eta txosna ipintzeko asmoa geneukan. Baina pandemiagaitik dena eten zen, bai txosna batzordearen jarduna eta baita jaiak ere. Beraz, aurten lehenengoz ipiniko dugu txosna eta gogotsu gaude San Prudentzio jaietarako", azaldu du Txaber Altube Mugimendu sozialistako kideak.

Bestalde, mugimendu sozialistako kideen hitzetan garrantzitsua da txosnagunean presente egotea aldarri politikoak kalera ateratzeko. "Guretzat garrantzitsua da orokorrean gure aldarri politikoak, mugimendu sozialistaren aldarri politikoak, kalean egotea. Hasieratik garrantzia eman diogun zerbait da eta iruditzen zaigu jai guñeak eta txosnak, hainbeste jende eta batez ere hainbeste gazte langile elkartzeko den espazioak izatera, egon beharreko lekuak direla interbentzio politikorako. Gainera, garrantzitsuak dira gure mugimenduetan berak ere presentzia izateko. Bestalde, ezinbestekoa iruditzen zaigu urteetan bertan behera gertatutako jaien antolakuntzan berriro ere parte hartzea eta txosna ipinita gure ekapena egitea. Azkenik, jai eremuak finantziatorako iturri inportantea ere badira guretzat", amaitu du Altube.

MATIENA ESTANKOA

Trañaetxoste, 2
MATIENA - ABADIÑO
Tel.: 946 814 033

MAPFRE
BEGOÑA NAVARRO CAPANAGA
MAPFREKO DELEGATUA MATIENAN

San Prudentzio, 2
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 88 89
681 374 042
navarrb@mapfre.com
www.mapfre.com/oficinas/4837

Aplicaciones eléctricas
IZARAK, S.L.

Konponketa elektrikoak,
motorren birbobinaketa,
banaketa eta kontrol-koadroak
Instalazio elektriko industrialak,
komertzialak, publikoak
eta etxeokak.

Astola, 12 946 815 786
48220 Abadiño 946 811 704
izarak@telefonica.net info@izarak.com
www.izarak.com

electricidad **ELGOIN S.A.**

**MUNTAIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
SARE INFORMATIKOAK**

Zubibitarte, 6
48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
Tel.: 946 817 961 · elgoin@elgoin.com

SCHMIDT
Ondo pasa jaietan!

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK

OSTALARITZA • EKAITZ HERRERA

Oxforden lan egiten du. Baina ez Ingalaterran. Traña-Matienako kafetegian baino. Irribarre pikaroa izaten du aurpegian, eta kafeak zein gintonicak adarjotze dosi bategaz zerbitzatzen ditu. Gazteekin moldatzen da ondoen, beharbada berak ere errebeldia eta bihurrikeriak maite dituelako. Horregaitik hartu behar dira berak esandakoak adarjotze modura. Kazetariaren adarjotzeen antzeratxu.

Ostalariak psikologoak ere bazare-tela diote.

Bai, eta bezeroa mozkortuta badator, orduan gehiago. Momentu horretan bere bizimodua konpontzea dagokizu. Mozkortuta ez dela inora ailegatuko adierazi behar diozu.

Medikua, psikologoa, tabernaria... Eta, hala ere, soldata bakarra.

Bai. Eta txarrena da ez duzula familia-mediku batek beste kobratzen.

Oxfordeko Unibertsitateak sona handia du. Traña-Matienakoak ere bai?

Abadiñoko jendea etortzen da, jakina. Durangoko jende asko ere bai. Bilbotarrak ere bai. Profil eta soziologia askotariko jendea batzen da gurean. Eta ni eroso nago aniztasun horretan. Kulturartekotasuna maite dut.

Zein garrantzia dute Traña-Matienako jaiek zuretzat?

Adinez aurrera noanez, ez askorik. Baina, bai, jai herrikoak dira, auzo izaera dutenak. Gazte asko dator. Lanik gehien egiten den tabernetariko bat da gurea.

Asko aldatu da tabernan sozializatzeko modua?

Indibidualismoa geroago eta orokortuago dago, eta joera hori ta-

“Seriotasun gehiegi dago; jendea Andra Mariko arkupea baino zurrunagoa da”

José Antonio Obregón 'Towi' Oxford kafetegiko langilea da. Traña-Matienako jaietan lan egingo duen 23. urtea izango da



José Antonio Obregón 'Towi'

Ostalaria
DURANGO | 1962

Bezeroei ondo pasatzeko esango nieke, errespetuz tratatzeko, borrokarik ez sortzeko, eta, ahal badute, ligatzeko. Txortan egiten badute, ederto

bernan ere islatzen dela esango nuke. Lauko talde bat badator, bakoitzak berea ordainduko du. Ez dute denen artean botea ipiniko. Bakoitza bere kontura doa, alde horretatik.

Edariak ere aldatzen dabilta. Esne eta marrubi zaporeko tekila, adibidez, indartsu dabil.

Hori txerrikeria hutsa da. Horrelako bi hartu eta komunean pasatuko duzu aste osoa.

Beti zerbitzatzen dituzu tragoak bezeroak zirikatuta.

Izan ere, aspertu egiten naiz tabernan. Seriotasun gehiegi dago. Jendea Andra Mariko elizpeko zutabeak baino zurrunagoa da.

Gura baduzu, lerro hauek aprobetxatu ditzakezu bezeroei adarra jotzeko.

Ondo portatzeko esango nieke, ondo pasatzeko, borrokarik ez sortzeko, elkar begirunez tratatzeko, ez edateko gehiegi, eta, ahal badute, ligatzeko. Eta txortan egiten badute, ederto.

Talleres Serafín S.Coop



Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807



ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com



- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobiekako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

Karmelo Agirre Barne Diseinua

kolegiatu zenbakia 183 C.O.D.D.B.

Proiektuak, **etxebizitzak**, komertzioak, **ofizinak**, **dekorazio integrala**

karmelointeriorismo@gmail.com ☎ 610 50 10 86

BAR MESON

Trañabarren, 2
ABADIÑO (Bizkaia)
Tel.: 946 815 653

Rabak domeketan

ATSEGIN CAFETERIA BAR



Trañabarren, 9 behea
Tel.: 946 072 198

R. SAMUR COMPRESORES

Lehorgailuak - hozkailuak
- iragazkiak - instalazioak
- konpresoreak - zerrak

TRANA industrialdea,
pab. D-13, ABADIÑO
Tel.: 946 818 967
www.reparaciones-samur.com
samur@reparaciones-samur.com



LANGUAGE SCHOOL
RED HILL
300751720-946914232

TALDE TXIKIAK
CAMBRIDGEKO AZTERKETA OFIZIALETARAKO FORMAZIOA
Zubibizarte 11 • Behea, ezkerre
Matieneta, Abadiño
www.redhilllanguages.com
redhill.language.school@gmail.com
Redhill Language School
Cambridge English
First for Professionals



TONO
ALBAÑILERÍA
Igeltserotza orokorra
Etxebizitzan zaharbertitzak
Merkataritza-lokalak
Baserriak


GREMIOEN
KOORDINAZIOA

686 420 383
946 202 565



MARRAZKIA BUKATU



Robota guztiz desegin da. Lagundu konpontzen pieza guztiak bere tokian ipinita.




TOPATU ITZAZU

Topatu itzazu beheko irudian hemengo objektu hauek.

911



LABIRINTOIA





Tontolapiko Eguna

JAIALDIA DURANGO :: Apirilak 16

Umore ikuskizunez gozatzeko egun osoko jaialdia, Durangon

Tontolapiko Egunak Topaklown jaialdiaren lekukoa hartuko du aurten. Hartara, umore ikuskizunek osaturiko egun osoko egitaraua prestatu dute Durangon, apirilaren 16rako. Guztira, bost ikuskizunez gozatzeko aukera emango du Tontolapiko Egunak. Ganso&Cia konpainiaren *Babo Royal* antzezlanagaz hasiko da egitaraua, Aurora Abasolo parkean, 12:00etan. Hurrengo hitzordua Ezkurdin izango da, 13:00etan. Toti Toronellek (He-

rrialde Katalanak) *Libelula* obra eskainiko du bertan. Lan hori berri, 17:00etan eta 19:00etan ere antzetzuko du, Ezkurdin.

Señor Stetsenek (Danimarka) *Lonely Orkestar* aurkeztuko du, 18:00etan, Jose Miel Barandiaran kalean, eta Cia Cris-isenek (Herralde Katalanak) *Home* antzezlanana 20:00etan, Aurora Abasolo parkean. Eguna amaitzeko, Wilburrek (Madril) *Fuego Salvaje* aurkeztuko du, 22:00etan, San Agustin kulturguneko aterpean.

Apirilaren 8an

DURANGO aurkezpena
Imanol Agirrek 'Akresale' liburua aurkeztuko du, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'El avaro' (Morboria Teatro), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia
'Good sex Maritxu' (Susana Soletto, Itxaso Kintana eta Gurutze Beitia), 19:00etan, Ibarretxe Kultur Etxean.

Apirilaren 9an

DURANGO musika
Tabira Musika Banda, 20:00etan, Andra Maria elizan.

DURANGO kontzertua
Occhi di farfala + Toc, 22:00etan, Sorginola gaztetxean.

OTXANDIO bertsoak
Durungaldea Uztabarritzen bertso zirkuitua, 18:30ean, Andikona plazan. Ane Labakak, Unai Iturriagak, Irune Basagoitik eta Ander Elorriagak egingo dute bertsoan.

ZORNOTZA irteera
Bernedo ingurura irteera, 08:00etan. 'Ibiliaz ezagutu' egitarauaren eskutik 12 kilometroko ibilbidea egingo dute parte hartzaileek.

ZORNOTZA musika
'Bidaia barne mundura' musika emanaldia (Zornotzako Musika Banda eta Oreka Reed Quintet), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 10ean

DURANGO magia
'Ezinezkoaren logika' magia ikuskizuna (Hodei magoa), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

GARAI azoka
VIII. Landare eta Lorazaintza azoka, 10:00etatik 15:00etara.

ZORNOTZA antzerkia
'Leihoak' (Teatro Paraiso), 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 10era bitartean

DURANGO erakusketa
Mercedes Olalderen lanak, Ezkurdi erakustazokan.

Apirilaren 13tik 15era

DURANGO erakusketa
Durangoko Pasiñoa, 21:00etan, Santa Anan. Aforoa 250 pertsonakoa izango da eta sarrerak aurretiaz hartzea gomendatu dute, El Arco tabernan edo 661 088 324 telefonora deituta.

Apirilaren 21ean

ELORRIO bertsoak
Durungaldea Uztabarritzen bertso zirkuitua, 20:00etan, Elorrioko Gaztetxean. Maialen Akizuk, Nerea Ibarzabalek, Bittor Altubek eta Gorka Pagonabarragak egingo dute bertsoan.

Apirilaren 22an

IURRETA antzerkia
'Ehiztari ehizatua' (Patata Tropikala konpainia), 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Apirilaren 23an

ZORNOTZA antzerkia
'Mi hijo solo camina un poco más lento' (Ttanttaka konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 28an

IURRETA ikuskizuna
'Frankismoaren hasiera gogoratu' kultur ikuskizuna. Iurretako eta Durangoko gazteek musika, dantza eta antzerkia oinarri izango dituen errepresentazioa egingo dute, 19:00etan, udalerrri bien arteko zubian, Montoian.

Apirilaren 24ra bitartean

DURANGO erakusketa
Goyaren, Haesen eta Fortunyren grabatuak, Arte eta Historia Museoa.

Apirilaren 30era bitartean

ELORRIO erakusketa
Zumelegi zentroko egoiliarren lanen erakusketa, Iturri kultur etxean. Elorrioko monumentu eta paisaiak ikusi daitezke lan horietan.

ZORNOTZA erakusketa
'Retrato en blanco y negro' argazki erakusketa, Zelaieta zentroan. Uztargi.klik elkarteak antolatuta.

Apirilaren 29an

ELORRIO antzerkia
'El premio' (Quintana Teatro), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Ama' (Marie de Jongh), 20:00etan Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Dientes de Luna, 20:30ean Zelaieta zentroan.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA

• **El Brindis**
zapateria 9: 19:00

• **Dos colegas y la gran bestia**
domeka 10: 17:00

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Los tipos malos**
barikua 8: 17:00
domeka 10: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Animales fantásticos: Los secretos de Dumbledore**
barikua 8: 19:30
zapateria 9: 17:30 / 19:30
domeka 10: 17:30 / 19:30
astelehena 11: 19:00
martitzena 12: 18:30
eguzatena 13: 19:00

• **Las cartas de amor no existen**
barikua 8: 18:30
zapateria 9: 18:15/20:15
domeka 10: 18:15/20:15
astelehena 11: 20:15
martitzena 12: 20:15
eguzatena 13: 20:15

• **Para Chiara**
barikua 8: 19:30
zapateria 9: 20:15
domeka 10: 20:15
astelehena 11: 19:00
martitzena 12: 18:30
eguzatena 13: 19:00

• **Sonic 2**
barikua 8: 20:30
zapateria 9: 16:45
domeka 10: 16:45
astelehena 11: 18:00
martitzena 12: 18:00
eguzatena 13: 18:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Un pequeño mundo**
zapateria 9: 20:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:00


• **Orkestra lurtarra**
domeka 10: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Las ilusiones perdidas**
barikua 8: 20:00
astelehena 11: 20:15

• **Yo, Daniel Blake**
martitzena 12: 20:15

merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkatariak gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena

(urtean 50€)

Urte biko geldialdiaren ondoren, Durangoko Pasiñoa gaztetuta bueltatuko da Santa Ana plazara

Apirilaren 13an, 14an eta 15ean egingo dituzte emanaldiak, 21:00etan, Santa Anan; sarrerak salgai daude



Juan De Iciar elkarteko kideak, udaleko kideekin.

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Urte biko geldialdiaren ondoren, Durangoko Pasiñoa gaztetuta eta indarberrituta bueltatuko da Santa Anara. Marcos Etxarte gazteak zuzenduko du obra, eta protagonista

nagusiak ere beste gazte bi izango dira: Markel Ganboa izango da Jesus, eta Sheila Ceida Maria. Biek ala biek urte askoan parte hartu dute Pasiñoan, baina aurtengoa lehenengo aldia izango dute pro-

tagonisten azalean. Juan de Iciar elkarteko kideek prentsaurrekoan azaldukoaren arabera, Etxarte "azken urteetan egon den zuzendaririk gazteena" da. Hain zuzen ere, "gazteen energia" baliatu behar

dutela nabarmendu dute antolatzaileek. Emakumeek izango duten presentzia ere azpimarratu dute. "Emakumeei orain artean baino paper gehiago eskaintzen ahalegindu gara", esan dute.

Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak Juan de Iciar elkartearen lana azpimarratu zuten aurkezpenean. "Harro nago zuen lanagaz, gazteak horrelako ilusioagaz lan egiten ikusteaz" esan zuen Garrastatxuko. "Geldialdiek kalte handia egin dute elkartearen jardunean, baina zuek Pasiñoarekiko pasioa erakutsi duzue", adierazi zuen Riosek. Entsegu orokorra apirilaren 12an egingo dute eta herritarrei dei egin diete antzezlanean parte hartu gura izanez gero entseguetara joateko.

Sarrerak El Arco tabernan daude salgai; 661 088 324 telefonora deituta ere lortu daitezke

Sarrerak salgai

Pasiñoa ohiko formatuan bueltatuko da. Horrela, beti egoten diren harmailak egongo dira Santa Anan. Emanaldi bakoitzean, 250 lagun sartuko dira. Juan de Iciar elkarteko kideek sarrerak aurretiaz erosteko gomendioa egin dute. Sarrerak El Arco tabernan egongo dira erosgai. 661 088 324 telefono zenbakira deituta ere lortu daitezke.

Gitarra doinuak nagusituko dira zapatuan Sorginolan, Ochi di Farfalla eta TOC taldeekin

Kontzertuak zapatuan izango dira, 22:00etan; sarrerak 5 euroan salduko dira

MUSIKA • A. M.

Beste behin ere, rock doinuak nagusituko dira Durangoko Sorginola gaztetxean, Ochi di Farfalla eta TOC taldeen kontzertuetan. Talde biek rock doinuak dituzte oinarri, baina bestelako ukituekin ere janzten dituzte emanaldiak, punkagaz besteak beste. Euren azken lanak aurkezteko asmoagaz etorriko dira Durangaldera, Iraun eta Zidazun, hurrenez hurren.

Ochi Di Farfalla (ODF) Miren Aranguren eta Hodei Esteban zaurzarrek martxan ipinitako proiektua da. 2013an ekin zioten ODF-n jotzeari, bikote akustiko lez; baina, denboragaz, elektrikora jauzi egin dute eta azkenengo lanean ere igartzen da energia hori. Egun boskotea osatzen dute Carlos Aquinogaz (bateria), Juanmi Boschegaz (gitarra) eta Craig Bjerringaz (baxua) batera.

Olatua Mungia aldetik

Azken urteetan, gitarra doinuetan nabarmentzen den hainbat talde sortu da Mungia aldean, hala nola Belako, Sua, Lukiek eta TOC. Azken horiek Zidazun disko berria aurkeztuko dute. 2021ean kaleratu zuten eta hamabi kantuk osatzen dute emozioz eta kontrastez beteriko lana. Mikel Bilbaok, Ander Goitiak, Xabier Bilbaok eta Aitor Etxebarriak osatzen dute TOC.



Miren Aranguren, Ochi di Farfallako abeslaria.

12:00
Aurora Abasolo parkea
GANSO&Cia (Durango)
"BABO ROYAL"

13:00/17:00/19:00
Ezkurdi plaza
TOTI TORONELL (Katalunia)
"LIBÉLULA"

18:00
Barandiaran kalea
SEÑOR STETS (Dinamarka)
"LONELY ORKESTAR"

20:00
Aurora Abasolo parkea
CIA CRIS-IS (Katalunia)
"HOME"

22:00
San Agustin Kultur Gunea
WILBUR (Madril)
"FUEGO SALVAJE"

TONTOLAPIKO eguna
DURANGO UMOR IKUSKIZUNEN MAPATOIA
apirilak 16

DEBALDE

*Euria egiten badu, Landako Gunean. Informazio osagarria eskuratzeko webgunea: <https://www.durango.eus/tontolapiko-eguna>

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Harpagon jauna da protagonista.

Morborea konpainia madrildarrak 'El Avaro' aurkeztuko du Elorrion

Antzerki emanaldia gaur izango da, barikua, apirilak 8, Arriola antzokian, 20:00etan

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Morborea antzerki konpainia madrildarrak ia lau hamarkadako ibilbidea du antzerkigintzan. Molière legez ezagunagoa den Jean Baptiste Poquelin artista handiaren omenez, *El Avaro* komedia ezaguna moldatu dute, artista ezagunaren jaiotzaren 400. urteurrenean. Ia ordu biko antzezlanean, ikusleari barre artean hausnartzeko gonbita egingo diote. Orain lau mendeko istorioa izan arren, gaur egunean ere bikain ulertuko ditu ikusleak pasarte batzuk, eta ezagunak ere egingo zaizkio. Obrako protagonista, Harpagon jauna, despota zeke-

na da, paranoikoa, eta inogaz ere ez da fio. Etxean duen dirutza ez darama bankura, eta horrek bertako giroa itogarri egiten du. Flecha eta Frogina pertsonaiek, ostera, maitasuna eta zentzua ekarriko dizkiote istorioari.

Eva del Palaciok zuzendu du ikuskizuna, eta oholtzara antzetera irteteko ere baliatu du aukera. Del Palacioz gainera, Fernando Aguadok, Virginia Sanchezek, Daniel Miguelañezek, Eduardo Tovarrek, Luna Aguadok, Ana Belen Serranok, Vicente Aguadok eta Trajano del Palaciok osatzen dute antzezle taldea.

'Orkestra lurtarra', Elorrion

Bestalde, asteburuan *Orkestra lurtarra* animaziozko filma eskainiko dute Arriolan. Harkaitz Canoren izen bereko liburuan oinarrituta dago pelikula, eta musika talde baten gorabeherak kontatzen ditu. Imanol Zinkunegik eta Joseba Poncek zuzendu dute lana, eta bertan hainbat musikaririk ere parte hartu dute; besteak beste, Broken Brothers Brass Bandeko haize sekzioak, Josserra Senperenak, Libe Garcia de Kortazarrek eta Lide Hernandok. Domekan izango da emanaldia, hilak 10, 17:00etan.

Zumelegiko egoiliarren obrak ikusgai egongo dira apirilean

Ana Maria Maraño artistaren lanak ere badaude

ARTEA • A. M.

Zumelegiko egoiliarrek eginiko lanekin erakusketa antolatu dute Iturri kultur etxean. Hamabost lan ikusi ahaliko dira bertan. Lanek Elorrioko monumentuak eta paisaiak erakusten dituzte, batez ere. Antolatzaileek Ana Maria Maraño Cuevas artista egoiliarrarenak nabarmendu dituzte.

Elorrioko Zumelegi zentroan aniztasun funtzionala duten 35 lagun bizi dira. Zentroan hainbat jarduera egiten dituzte, baita

terapiarako eta aisialdirako ere, tartean pintura.

Ordutegi berezia

Erakusketa apiril osoan egongo da ikusgai. Baina Aste Santuko oporrak direla eta, ordutegi berezia egongo da erakusketa ikusteko. Hilaren 11tik 22ra, hauxe izango da erakusketako ordutegia: 09:00-14:00; apirilaren 9an eta 30ean, zapatuak biak: 10:00-13:00. Domeketan itxita egongo da Iturri kultur etxea.



Hamabost lanek osatzen dute erakusketa.

Gai librean

Erabakiak

7:30 dira, oheratu aurretik dutxatu nintzen aspaldiko partez, nire ohiturek goizetan dutxatzera naramaten arren, beraz goizean ez naiz berriz dutxatuko; beraz, 15 minututxo gehiago lo. Kaka, 8:00ak. Eta ania eraman behar dut ikastetxera, 8:15erako. Berandu goaz, nire erruz. Lanera heldu naiz, eguena da, beraz gaur berandura arte lan egitea tokatzen zait. 16:15, eta bazkaldu barik. Atera naiz lanetik, herrigunetik joango naiz etxera ala N-634 ezagunetik? Tira, goazen Durango zeharkatzera, beste bidetik ziur mantso doala trafikoa. Kaka, ikasle talde bat zebra-bidean. Kaka, autobusari irteten laga beharko. Agureak ez dit bada kobrarena egin orain, eta ni gelditu ostean pasatzeko esan? Kaka. Bide okerra hartu dut bada. Gosea areagotu zait bidean. Aita galdez-



Igor
Galarza Intxausti
Kazetaria

Agian zerbait jango dut ohera joan aurretik, bestela sabela orroka edukiko dut gau osoan

Metodikoa naiz, zorte txarra dudala esango nuke, eta destinuak zerbait ona zor didala uste dut

ka ea txipiroiak ala legatza gura dudan. Legatza gozoa egiten du... baina nire janari gustokoenetarikoa dira txipiroiak. Berotzen jarri ditut, ogia saltsan busti... Kaka. Gaziegi dago.

Gosearen gosez jan ditut, zeozelan. Logura naiz. Siesta egingo dut? Gauetz espero dut garaiz lokartzea... lo pixka bat egingo dut, baina ez berandura arte,

bilera dut 18:00etan-eta.17:58, kaka. Zapatilak jantzi eta korrika. Arnasestuka, barkamena eskatu ahala agurtu ditut denak. Bilera amaituta, etxera itzuli naiz. Agian zerbait jango dut ohera joan aurretik, bestela sabela orroka edukiko dut gau osoan. Eguerdiko legatza jango dut. Ederra dago. Piuf! Betekada latza. Oheratu naiz, baina ohean kabitu ezinik. Tripako dena gora etorri behar zaidan sentsazio etengabe bat dut. 01:00ak eta ezin lorik hartu, bihar 7:30ean esnatu behar naiz, dutxatu behar naiz...

Ez dut metodologian, zorian edo destinu sinesten; baina metodikoa naiz, zorte txarra dudala esango nuke, eta destinuak zerbait ona zor didala uste dut. Kapitalismoari botako nioke gustura asko errua, baina horiek guztiek jatorri bera dute: erabaki txarrak hartzen ohituta nago.



Durango Rugby Taldeko emakumeak aurten Elorrioren kontra jokaturiko derbian. PEDRO MORENO

Txapeldunek partidurik galdu barik amaitu dute liga

Liga irabaztea handia bada, zer esanik ez partidu bakar bat ere galdu barik irabaztea; horixe lortu dute aurten Durango Rugby Taldeko emakumeek

ERRUGBIA • J.D.

Durango Rugby Taldeko emakume seniorrek Bigarren Mailako Euskadiko Liga irabazi dute aurten, eta ez edozelan gainera: liga osoan ez dute partidurik galdu. Zortzi garaipen eta berdinketa bi, horixe da aurtengo uzta.

Taldearen iaztik honako progresioa handia izan da. Gazteen taldetik igotakoek freskotasuna ekarri dute, jokalar berriak azkar moldatu dira eta esperientziadunei lehenengo lerroan egotea egokitu zaie taldeari tira egiteko.

Aurretik errugbian ibili bako bost-sei jokalar batu dira aurten. Beraz, hasierako asteetan

entrenamenduak bitan banatu zituzten: esperiantziadunak eta esperientzirik bakoak aparte ibili ziren. Ondoren, apurka-apurka entrenamenduak bateratzera jo dute. Sistema horrek bere fruituak eman ditu. "Gogo handiagaz

"Gogo handiagaz aritu gara entrenamenduetan. Urte hasieratik hona asko hobetu dugu"

aritu gara entrenamenduetan, eta intentsitatea ikusi da. Urte hasieratik hona asko hobetu dugu", adierazi du Ane Elordi

taldeko jokalar eta kapitainak. Durangarrak hirugarren urte du errugbian eta taldean.

Harrobiko jokalariek ere oso ondo ibili dira. Gainera, arlo horretan itxaropentsu egoteko moduan daude etorkizunera begira ere. "Hainbat jokalar oso onak datoz", dio Sabin Goiti entrena-tzaileak.

Liga hasieran helburu batzuk markatzen dituzte urtero, eta aurten liga irabazi zezaketela ikusten zuten. "Ikusita gure ligan zer talde zegoen liga irabazteko aukera ikusten genuen", azaldu du Elordik. Goitik taldearen nortasuna azpimarratu du: "Konfiantzan irabazi dute".

Lehen Mailara?

Datorren denboraldian Lehenengo Mailan arituko ote dira? Oporretatik bueltan oraingo egoerari eusten badiote erantzuna baiezkoa da. Izan ere, Lehenengo Mailan aritzeko gako garrantzitsu

Gazteek freskotasuna ekarri dute eta jokalar berriak azkar moldatu dira taldera

bat jokalar kopurua da. Kopuru jakin batera heldu ezin direnak Bigarren Mailan aritzen dira, arauak malguagoak direlako:

errugbi 15ean barik errugbi 12an jokatu dezakete, talde biak ados badaude. Lehenengo Mailako partidu guztiak, ostera, 15ekoak dira. Aurten 24 jokalar aritu dira DRTn, eta, beraz, une honetan jokalar nahikoa dute Lehenengo Mailan aritzeko.

Gizonen taldea

Gizonen talde nagusiak asteburu honetan jokatu du seniorren Lehenengo Mailako azken partidua. Bilboko Valtecsa UBR taldearen kontra jokatu du, etxetik kanpora. Une honetan sailkapeneko seigarren tokian dago eta bosgarren edo laugarren amaitzeko aukera du oraindino.

Zornotza Saskibaloia Taldeko gizon zein emakumeak igoera fasea jokatzeko sailkatu dira

Emakumeak Tabirakoren kontrako derbia irabazita sailkatu ziren joan zen asteburuan

SASKIBALOA • J.D.

Zornotza Saskibaloia Taldea une gozoak bizitzen dabil. Gizonen nahiz emakumeen talde nagusiak goiko postuetan borrokan dabilta eta liga amaierara bitartean emozio handiko uneak eskainiko dituztela ematen du.

Emakumeek Tabirakoren kontrako derbia jokatu zuten joan zen asteburuan. Intentsitate handiko partidu batean parekotasuna nagusitu zen momentu askotan. Azkenean, Zornotza STk 55-42

menderatu zuen Tabirako Baque eta Lehen Nazional Mailako igoera fasea jokatu du.

Gizonen taldeak liga irabazteko aukera du bere mailako igoera faseari ekin aurretik

Gizonei partidu bakarra falta zaie Zilarrezko Liga amaitzeko. Oraingoz, hamasei garaipen lortu

dituzte, iazko kopuru berdina, eta igoerako playoff-a segurtatuta dute. Ikustekoa da zelako berdintasuna dagoen maila horretan. Oraindino hainbat taldek irabazi dezake liga, eta azken uneraino dago borroka.

Lorpen hauei orain aste batzuk irabazitako Zilarrezko Lehen Kopa gehitu behar zaie. Zornotzarrek bere historian lehenengoz irabazi zuten garaikur hori. Etxean jokatu zuten finala, Larrea kiroldegian. Baina oraindino ospakizun gehiagotarako tartea egon daiteke.



Gizonek hamazazpi partidu irabazi dituzte oraingoz, iaz baino bat gehiago.

Durangoko Kulturala urteko unerik gozoenean heldu da azken txanpara

Jon Gonzalezen gizonak zortzi partidu daramatzate galdu barik. Lau jardunaldi baino ez dira falta Hirugarren Mailako liga amaitzeko, eta Kulturalak bost puntura du iguera fasea

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Lau jardunaldi falta dira Hirugarren Mailako liga erregularra amaitzeko, eta oraindino hainbat gauza dago erabakitzeko. Esaterako, igoserako faserako bosgarren eta azken postua. Une honetan Baskonia dago postu horretan, baina hainbat talde ditu zelatan. Durangoko Kulturala da euren arteko bat. Playoff-etara sailkatu gura badute, Gonzalezen gizonak bost puntuko aldea jan behar dute azken txanpara honetan.

Erronka gatxa da, arrazoi bigaitik. Bat agerikoa da; partidu gutxi

geratzen da alde hori guztia kentzeko. Bigarrena honako hau da: lautik hiru partidu sailkapeneko aurreneko hiru taldeen kontra-koak dira, Alaves B, Portugalete eta

Jon Gonzalez: "Ez dugu ezer galtzeko eta bai asko irabazteko. Ilusionatuta gaude"

Beasainen aurkakoak. Baina, inoiz izatekotan, Kulturala oraintxe da kapaz erronka gatx horri aurre egiteko. Zortzi jardunaldi darama-

tza galdu barik, lau garaipenagaz. "Taz, urte sasoi honetan, ez jaisteko borrokan geunden, eta orain iguera fasean sartzeko aukera dugu. Ez dugu ezer galtzeko eta bai asko irabazteko. Ilusionatuta gaude", adierazi du Jon Gonzalez entrenatzaileak.

Aurtengoa denboraldi gora-beheratsua izaten ari da. Denboraldi hasieran, hainbat emaitza on kateatu zuen. Ondoren, azarotik otsailera, bederatzita partidutan ezin izan zuen batere irabazi. Orain, osterera, puntuak batzen dabil.



Jon zen asteburuan 1-0 menderatu zuten Santutxu taldea. LUIS ITURRIOZ



Gurutze Frades ican Alicante triatloiko helmugan.

Fradesek garaipenagaz ekin dio triatloi denboraldiari

Ironmanen munduko txapelketarako prestakuntza bide onetik doa; iurretarrak Ican Alicante triatloia irabazi du

TRITLOIA • J.D.

Gurutze Fradesek Ironmanen munduko txapelketan parte hartuko du aurten ere, bosgarrenez bere ibilbidean, eta horra begirako prestakuntzan murgilduta dago. Lasterketa laburrekin ekin zion denboraldiari. Esaterako, Bizkaiko Kros Txapelketan bigarren amaitu zuen. Ondoren, prestaketan salto bat eman eta Mitja de Salou maratoni erdian parte hartu eta lasterketa hura irabazi egin zuen. Joan zen asteburuan, bere espezialitatean estreinatu zen, triatloian, eta emaitza ezin hobea lortu zuen. Ican Alicante

triatloia irabazi zuen. Aste honetan, hiru asteko kontzentrazioa hasi du Sierra Nevada (Andaluzia), preskuntzako azkenengo fa-

Orain kontzentrazioa hasi du, Sierra Nevada; munduko txapelketa maiatzaren 7an da

se modura. Urteko bere helburu nagusia, Ironmanen munduko txapelketa, maiatzaren 7an izango da, Utah estatuko (AEB) St. George herrian.

Jokaldia

Lineako mendi lasterketa

Euskal Mendi Federazioaren lineako mendi lasterketen koparen formatu berriaren arrakastaz hitz egin nahiko nuke gaurkoan. 2018 eta 2019. urteetan modalitate anitzeko hogeita mendi lasterketez osatutako egutegia zen "ranking" baten aldeko apustua egin ondoren, aurten aspaldiko kopa formatua berreskuratzeko hautua egin zuen EMFk. Hainbeste lasterketa elkartzen zituen egutegi baten, lasterkariak sakabanatu egiten ziren, askotan asteburu berean lasterketa bat baino gehiago elkartzen zirelako. Aurten go kopa honek bost lasterketa biltzen ditu eta sailkatzeko, gutxienez, lau lasterketa bukatu beharko ditugu kopa hau lehiatu nahi dugun korrikalariok. Esan beharra dago, momentuz, lineako lasterketekin soilik egin dutela kopa hau eta pena da ultra eta bertikalen kopak ez egotea 2018a



Garazi Sampredo Arando
Mendi lasterketak

Euskal Mendi Federazioaren lineako mendi lasterketen koparen formatu berriaren arrakastaz hitz egin nahi nuke

Azpitarratzekoa da EMF kopako lehen bi probetan egon den kirol maila, kategoria guztietan

baino lehenago egiten zen bezala. Esperodut datozen denboraldietan txapelketez gain, kopa formatuak ere egotea mendi lasterketen hiru espezialitate nagusietan.

Azpitarratzekoa da EMF kopako lehen bi probetan egon den kirol maila, kategoria guztietan. Martxoaren 19an jokaturako Bediako Kolaziñon Oihana Azkorbebeitia eta Asier Larruzea izan

ziren txapelkunak. Apirilaren 2an bigarren proba egin zen Mendaroko Kilimon Trail lasterketan eta kirol ikuskizun apartaz gozatu ahal izan genuen hemen ere. Onditx Iturberen nagusitasun nabarmena agerian geratu zen beste behin senior mailako emakumeen kategorian. Itzela da igorretarra lortzen ari dena astez aste. Mutilen kategorian, aldiz, ikusgarria izan zen lehen lau mutilak sprintean sartzera herrian. Bi orduko esfortzua ostean, lehen lau mutilak minutu eskaseko aldeaz helmugaratzea ez da ia sekula gertatzen mendi lasterketan. Javi Goitiak eraman zuen txapela azkenean, eta bere atzetik helmugaratu ziren I. Goñi, A. Larruzea eta A. Kjaerevik norvegiarra.

Hurrengo kopako proba ekainean izango da. Bien bitartean, beste lasterketez adi egongo gara. Etzi, adibidez, Arrasate-Udalatx lasterketa izango da.

DURANGALDE



Larranoko iturria

Pol-Pol laguna zelan zabiltza?
Ni zoriontsu ta pozik
negu giroa dugu berriro
edurra egin du gogotik
Santa Barbara ermita zutaz
galdezka dut goragotik
zuri ta zure hiru txorrotei
gorantziak Larranotik

KO TXOKOAK!



Pol-Pol iturria

Haizeak mezu bat ekarri dit
iturritik iturrira
Larrano lagun pozarren nago
edurra heldu da mendira
izara zuriz jantzita dena
zer polita, zer distira!
Zuek biok be ondo jarraitu
Durangaldera begira



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



IURRETA
Iurretako Udaletxearen ondoan. Etxebizitza eta atikoak. 2 eta 3 logela, 2 komun. Baxuak lorategiarekin. Etxebizitza guztiak terrazarekin. Trastelekua eta garajea.
232.000€- tik aurrera



DURANGO
FRANTZISKO IBARRA: Etxebizitza altua, 117 m². 3 logela, 2 komun, egongela handia eta sukalde-egongela. Ganbara. Garajea.
C.E.E= E 305.000€



DURANGO
10 urteko apartamentua. Logela, komuna eta egongela. Igogailua.
C.E.E= F 145.000€



DURANGO
ASK. ETORBIDEA: 82 m². 2 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Terraza handia. Hegoaldea. Ganbara.
C.E.E= E 235.000 €



IURRETA
BIXENTE KAPANAGA: 92m². Eguzkitsua. (hegoaldea) 3 logela, komuna, sukalde, eskegitokia eta egongela handia. Terraza. Ganbara.
C.E.E= G 190.000€



DURANGO
SASIKOA: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Lehoi berriak.
C.E.E= G 145.000€

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukalde jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €**.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatuko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
73,77 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoa-iparraldea) Herriko irteeratik gertu, zonalde berdeak, zonalde lasaia. Egoera onean. 4,48 m²-ko ganbara barne. Garajearekin + 17.000 €.
C.E.E:E 235.000€



DURANGO
71,95 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta eskegitokia. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. 6 m²-ko trastelekua. 11,47 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
C.E.E:D 249.000 €



BIXENTE KAPANAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua.
C.E.E:Bidean 190.000€



IURRETA
70 m²
3 logela
ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu.
173.000 € C.E.E: F



DURANGO
85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.
249.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA
70 m²
3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Argitsua. ITE 2018. urtean pasatakoa.
C.E.E:E 159.000€ Negoziagarria

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukalde, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO
MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D//BERRIZ**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitako baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA
ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA
TRAÑABARREN: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO
GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI
Etxebizitza, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI
Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK
DURANGO
SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. garajea eta trastelekua. **275.000 € / E.E.Z=F**

BERRIZ
ABELETXE AUZO: 1.166 m²-ko lursaila etxea eraikitzeko.

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 8 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 9 - 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO
22. - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI
OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO
ARANA 6 - ZORNOTZARUIZ, JUAN EL
ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 10 - 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 11 - 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 12 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA MURUETATORRE
2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 13 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 14 - 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Aare!** Egun zoriontsua opa deusugu, politte. Ziur gauz dantzan edo kantuen pasauko dozule! 28. udabarri on, pilo bat maite zaittugu! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak, **Markel eta Irati!** 4 urtetxu eta urtetxu bat! Zelako zoragarriek zarien... asko maite zaituegu! Segi gozaten. Moxu eta besarkada handi bet danon partez! Matxe-matxee!



Iparrek 11 urte egin ditu apirilaren 6an, eta **Paulek** 6 urte egingo ditu apirilaren 9an. Zorionak eta mosu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Txaber!** Aitatzoren eta familiaren partez. Oso harro gaude zutaz. Maite zaitut, infinito!

Eguraldia

ZAPATUA 13° / 5° ☁

ASTELEHENA 22° / 12° ☁

EGUAZTENA 16° / 9° ☁

DOMEKA 23° / 5° ☁

MARTITZENA 17° / 11° ☁

EGUENA 18° / 9° ☁

APIRILAK 22 UMEAK

IBARRETXE KULTUR ETXEAN

12:00 "EHIZTARI EHIZATUA" EUSKERAZ

"PATATA TROPIKALA"

HARTU ZURE GONBIDAPENA



“Bizitzeko modu bat da niretzat joskintza; asko asetzen nau”

Garbiñe Gallastegi joskintza ikastaroak ematen hasi da Berrio-Otxoa kalean duen dendan. Jantziak neurriera egiten ditu elorriarrak, baita baserritar jantziak ere



Garbiñe Gallastegi Villanueva

Joskintza ikastaroak ematen ditu

ELORRIO | 1959

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Martxoan, Garbiñe Gallastegi joskintza ikastaroak ematen hasi zen, hamabi ikaslegaz, hiru taldetan banatuta. Eta ez du baztertzeko gehiago sortzea. Dena zelan doan ikusi behar. Umeentzat ikastaroa antolatzea du erronka.

Zelan doa hasi berri duzun abentura?

Oso pozik nago. Nork esango zidan! 15 urtegeaz ikasi nuen josten, eskolatik irten berri. Umeentzako arropa egiten nuen; abaraska punta, batez ere. Baina, handik gutxira, denda batean hasi nintzen lanean, eta neure denbora librean josten nuen. 1986an neure denda zabaldu

nuen eta josteari utzi nion. Orain hamar urte hasi nintzen berriro josten. baditut urte batzuk eta aldaketa handia izan da, baina semeek eta errainak asko animatu naute. **Zure ikasleak hutsetik hasi dira josten ikasten?**

Gehienek ez dakite josten. Badaude bideo tutorialei jarraituz motxilaren bat edo poltsaren bat egin dutenak, baina ez dakite praka baten barrena hartzen. Hori irakasten hasiko naiz, oinarrikoagaz. Denak dira emakumeak, gizonik ez da animatu, baina ez dut itxaropena galdu.

Zenbat denbora ematen duzu josten?

Ahal dudana guztia. Bizitzeko modu

bat da niretzat joskintza; asko asetzen nau. Oihala lehenengoz mozteak errespetua sortzen dion horie-

Joskintzak denbora eskatzen du, eta pazientzia handia; ezin da nagirik izan jositakoa askatu behar izateko

tarikoa naiz, baina bezeroa pozik gelditzeak, eta ni neu ere bai, poz handia sortzen dit. Pandemiaren oso berandura arte ibili izan naiz jos-

ten; egun batean baino gehiagotan, 02:00ak arte. Lan bat hasiz gero, lotara joan aurretik amaitu behar dut. Gainera, gauetz sortzaileago sentitzen naiz. Joskintzak denbora eskatzen du, eta pazientzia handia; ezin da nagirik izan jositakoa askatu behar izateko.

Deneriko arropa josten duzu. Baduzu enkarguren bat bereziki gogoan?

Orain urte batzuk, ezkongai soinekoa egin nuen, rockzale estilokoa. Emaitzagaz oso pozik geratu ginen biok. Egin didaten enkargurik bitxiena da. Adur-zapiak eta irakasleentzat amantalak ere egiten ditut.

“Asko gustatzen zait baserritar jantziak jostea. Denerik egin behar da, eta neure barrua husteko aukera ematen dit, koloreak nahastu eta irudimena astintzeko”

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Eskuz jostea. Badaude lan batzuk ezin direnak makinaz josi. Adibidez, asko gustatzen zait baserritar jantziak jostea. Denerik egin behar da, eta neure barrua husteko aukera ematen dit, koloreak nahastu eta irudimena astintzeko. Gainera, ez dut inoiz errepikatzen, jantzi bakarrak dira. Oihalen artean, pikea, harizko oihala eta krepere-a ditut gustuko.

Inoiz egingo ez zenukeen lan bat?

Txarto josten den ezer ere ez nuke josiko, ez delako ondo geratzen. Nurrua, adibidez, oso txarto josten da. **Zer da egin gura zenukeen hori?**

Egin dut egin gura nuena. Bezeroen batentzat ez bada, neuretzat. **Jostun eta diseinatzaile bat?**

Askok dute zeozer, eta uste dut denetatik ikasi daitekeela zeozer. Balentziagaren ikastaro bitan ere parte hartu dut Billbon, eta asko disfrutatu dut. Garai bateko joskintza lanak gogoratzeko balio izan dit, goi-joskintza delako. Garai batean lez josten dut nik. Beraz, goi-joskintza egiten dut. Jantzi bat egiten hasita, ondo egin behar da. Horrek hainbat proba egitea eskatzen du.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Zutabegileen kontra

Iritziak ez dira berez sortzen, norbaitek sorrarazten dizkigu. Sanoa da gizarte batean iritzi sortzaile ugari egotea, baina badu arrisku bat: zutabegileak ager daitezke.

Norbaitek haien bizipenak edo iritziak kontatzeko espazioa eskaini zienez, uste dute esateko dutena interesgarria dela gainontzekoentzat, eta istripu kognitibo horretatik sortzen dira munstroak, zutabegileak. Batzuetan sasijakintsuak, bestetan harroputzak, gehienetan gogaikarriak. Harrotutako umeak, aberats berriak. Baina batez ere zinikoak. Soilik zutabegile batek traizionatuko lituzke bere gremiokoak, ukondokadaka besteen gainera igo haien kontrako zutabe bat idazteko, norbere buruaz barre egitearen ariketa faltsu batekin, bere kideei labana sartuz arreta apur baten truke, gupida barik. Umiltasun faltsuaren teknika, beti auzolotsagarri. Psikopatak dira, egolatrak, jaten emanez gero manifestu edo autobiografia bat idazteko gai.

Erruaren zati bat zutabeak argitaratzen dituzten komunikabideek dute, euren agerkarian betelanean dauden espazio horiek komunikabidearen zutabea direla esatearren, zutabeok ezer eutsiko balute lez, zutabegileen ego puztuez gain. Erruaren beste zatia zutabeak irakurtzen dituzuenok duzue, hemendik ezer baliagarria aterako duzuelakoan lerrootara zatotzelako, eta egin daitekeen gauzarik okerrera egiten duzuelako batzuetan: zutabegileari haren zutabea gustatu zaizuela esatea.

Idazleek, behintzat, editoreak dituzte; zutabegileek gura dutena egin dezakete, ez dago kontrolik, ezta lotsarik ere. Gelditu ditzagun, berandu baino lehen. Badakit zer diodan, egidazue jaramon: zutabegile bat naiz.



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com